



Feria egitera

Altsasun guztia prest da hiru ospakizun egunetarako / 13



Irene Adan Valientek
sexu langileek
pairatzen duten
biolentzien inguruko
lana egin du / 2-4

Haien artean
ziurgabetasuna
nagusi dela,
Sunsundeguiko
langileak etxean / 6-7

Gorka Izagirrek
"txikitako
ametsa beteta"
esaten dio agur
txirrindularitzari / 18-19

Iturrock jaialdia
antolatu zuen herritar
talde batek; aurten
bigarren edizioa
izanen da / 23

SINADURAK

	RAF ATXURI / 5		SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK / 5
	ASUN BERASATEGI GARTZIANDIA / 14		IRATI PELLEJERO MARIN / 22



**Ongi Pasa
ferietan!**

Sakanaoptika
optikarretika • audiorretika • kontaktuologia

San Juan kalea 40 (Altsasu)
948 563 124 | WWW.OPTIKASAKANA.COM

"Besteak beste, sexu langileen eskubideen alde lan egiten dugu"

IRENE ADAN VALIENTE ANTROPOLOGOA

Prostitutek jasaten duten biolentzien inguruko txosten bat egin du; ondorioztatu dutenaren arabera, asko arrazismo eta transfobiagatik ematen dira

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Irene Adan Valiente arbizuarrak Murtziako Sexu langileen babeserako batzordean (CATS - Comité de apoyo a las trabajadoras del sexo) lan egiten du. Gobernu Kanpoko Erakunde honek sexu langileen ongizatearen eta eskubideen alde lan egiten du eta, besteak beste, ikerketak egiten dituzte; Adanek *Las prostitutas hablan de violencias* (Prostitutek biolentzien inguruan hitz egiten dute, euskaraz) txostenaren egilea da.

Nola sortu zen txostena?

Normalean prostituzioan ematen diren biolentzietatik buruz hitz egiten dugunean, proxenetek eta puteroek eragiten duten biolentziaz hitz egiten da. Baina oso gutxitan hitz egiten da instituzioek edo polizia eragiten dutenaz, justizia erabiltzeko arazoak edo osasuna bera. Orduan, ikerketa honen helburua zen sexu langileen ahotsak lehenengo pertsonan helaraztea; identifikatu zeintzuk diren prostituzioan pairatzen dituzten biolentzia horiek.

Sexu langileak eta prostitutak. Zein da desberdintasuna?

Sexu langileak termino euritako bat da, eta bere barnean sartzen dira Interneten lan egiten duten langileak, ikus-entzunezko lan pornografikoak egiten dituztenak, telefono erotikoetako langileak, masajista erotikokoak... Sexu lan mota asko dauka. Txostena zerbitzu osoa egiten dutenei bideratuta dago, normalean prostituzioa bezala ulertzen dena, helduen artean diru edo beste ondasun baten truke sexu zerbitzu baten salmenta egiten dutenak.

Zein da CATSaren lana?

CATSek 22 urte baino gehiago daramatza sexu lana egiten duten pertsonen laguntza juridikoa, sanitarioa, psikologikoa eta soziala ematen, Murtzian, Alikanten, Albazeten, Almerian eta inguruko eskualdeetan. Alde batetik, pertsona hauek oinarritzko behar izanetan interbentzioa eta laguntza ematen die, osasun beharrak, esaterako, eta beste alde batetik, eragin politikoa eta ikerketak egiten ditu. Adibidez, egin dudan txosten hau eta urtean zehar argitaratzen dituzten beste batzuk. Txosten

hauek sexu lanaz sentsibilizatzeko egiten dira, baita sexu lanaren barruan existitzen diren hainbat eta hainbat errealitatei buruz hitz egiteko ere. Horiekin ere inzidentzia politikoa egiten da eta talde politikoei jasaten duten egoeraren aurrean benetako neurriak hartzeko eska dakieke.

Zein da sexu langileen egoera legala?

Espainiako estatuan prostituzioa ez da ilegala ez legala. Marko juridiko bat existitzen da, prostituzioa penalizatzen duena. Adibidez, bizitza publikoan sexu lanak eskatzea edo eskaintzea administrazio zigorgarria da. Orduan, sexu langileek isunak jaso ditzakete, eta jasotzen dituzte. Mordaza legearekin langileei isuna jartzen diete ez lana eskaintzeagatik, baizik eta autoritateari men ez egiteagatik. Poliziak eska diezaike kalean lan egiten duten sexu langileei beste toki batera joan daitezen eta kalean ez egoteko eta ondorioz jasotzen dituzte manifestanteek jasotzen dituzten zigorgarri berdina. Zenbait hiritan ere udal

ordenantzak existitzen dira eta isunak eta zigorgarriak jartzen dizkiete. Sexu langileak oso jazarrita daude, baina arraza eta genero identitate arrazoiengatik izaten da; hau da, arrazismoa eta transfobiagatik. Gehien jartzen dituzten langileak beste herrialdeetakoak eta administratiboki egoera irregular batean daudenak eta transexualak dira. Gainera, Bai da bai legearen arabera, prostituziaren publizitateak emakumeendako eta haurrendako iraingarria bezala ikusten da; beraz, publizitatearen prezioa igo da eta langileek arazo gehiago dituzte iragartzeko. Legea txostenaren tarte txiki batean aipatu dugu, lege honek sexu langileei arazo gehiago ekarri dizkielako; sexu lana egitea sexu askatasunerako kontrako delitu bat dela dio legeak, nahiz eta langilearen baimena izan. Hau da, langileei baimenak ezeztatzen dizkiete.

Proxenetismoaren aurkako lege proposamena eztabaidatu zuten Espainiako parlamentuan, ezta?

PSOEk aurkeztu zuen eta berez hiru orri zituen lege bat zen; benetan hiru orri zirela. Proposamenak bezeroarenganako punitibismo handi bat ziren; bezeroei zigor eta isun handiagoak. Baina ez zen emakumeen egoeraren hobekuntzarako neurririk aurreikusten. Neurri bakarra sexu biolentziaren biktimen parean jartzea zen; *Bai da bai* legean esaten denaren antzeko zerbait. Berriz ere sexu langileak

"ESTATUAN PROSTITUZIOA EZ DA ILEGALA EZ LEGALA; ZIGORTZEKO MARKO JURIDIKOA DAGO"

"MARKO IDEALENA DESPENALIZAZIOA DA; LAN LEGE PROPOSAMEN BAT DAGO MARTXAN"

biktimak balira bezala ulertzen ziren, eta ez sujeta bezala. Zorionez, lege hau proposatu zen baina ez zen aurrera eraman alderdigenak abstenitu edo kontrari bozkatu zutelako. Berri on bat da alderdigenek sexu langileen eskubideen aldeko diskurtsoak eta langileen beraien aldarrikapenak eraman zituztela. Hau da, ez da proxenetismoaren alde gaudela; delitu bat da eta jazarri egin behar da. Sexu langileen eskubide eta ongizate hobekuntzaren alde gaudela, eta horiek lortzeko kontestu egokiak sortu behar dira.

Zeintzuk dira penalizazioaren ondorioak?

Sexu langileengan eragiten duen eskubide falta bat da, lanaren kriminalizazioarekin harremana duena. Kaleko sexu langile askok esaten ziguten orain bezeroarekin negoziatzeko denbora gutxiago dutela eta ezin dutela ikusi seguruak sentitzen diren edo ez, poliziarengatik ihes egin behar dutenez, kotxean azkar sartzen direlako. Honengatik ere prezioak jaitsi dira eta preserbatiboaren erabilpena ezin dute negoziatu. ONUSIDAK oso txosten garrantzitsua kaleratu du esaten duena badagoela prostituziaren kriminalizazioaren eta GIBaren transmisio kasuen gorakadaren artean. HIESAREN kontrako gaur egungo estrategiaren barruan, helburuetako bat da herrialdeen %10 sexu lana deskriminalizatzea. Sexu langileen eskubideen aldeko ekarreetatik aldarrikatzen duguna ez da zerbait berria, mundu mailan eskatzen ari diren zerbait da, eta geroz eta erakunde gehiagok eskatzen dute. Amnesty International ere biolentzia hauek ikuspuntu honetatik salatzen ditu, eta gobernuak despenalizazioa eskatzen diete. Borondate politikorekin posiblea da, eta egiten ari den herrialdeetan, Belgikan, esaterako, oso emaitza onak jasotzen ari dira.

Zein izango litzateke marko legal idealena?

Guretako marko idealak da sexu lanaren despenalizazioa, Zelan-



da Berriaren modeloaren antzeko zerbait. Bertan sexu lana, prostituzioa, lan lekeen bidez erregulatzen dira. Horrek esan nahi du langileak langile kontsideratzen direla, eta eskubide zehatz batzuk dituztela. Adibidez, sexu langile batek lana utzi nahi badu, berehala har dezake langabezia prestazioa beste lan baterako trantsizioan laguntzeko. Beste neurri positibo bat da sexu langileek salatu dezaketela enplegatzailerei bai esplotazioagatik bai abusuengatik. Sexu abusua ere salatu dezakete. Antza denez sexu langileak sexualitatearekin erlazioa duenez, abusua lanaren parte dela; eta ez. Zelanda Berrian salatu dezakete bezeroarekin harremanaren edozein momentutan esan dezakete ezetz, eta onartuta dago. Estatuan OTRAS Sexu langileen sindikatuak (Sindicato de Trabajadoras Sexuales) lege proposamen bat atera dute lana despenalizatzeko marko juridikoarekin bat egiten duena. Beraz, esan daiteke, gaur egun existitzen dela sexu lana despenalizatzeko lege organiko baten proposamena alderdiei aurkeztu zaiena.

Zein prozesutan dago? Zeintzuk dira hurrengo urratsak?

Lege proposamena eta txosten bat aurkeztu dute; Bertan lege proiektu hori sortzeko erabili diren motibazioak eta zertan datza azaltzen da. Gaur egun, alderdi politikoei aurkezten ari dira, hau da, alderdiekin proposamenari buruz hitz egiten ari dira, alderdietan barneko trebakuntzak egiten ari dira, eta helburua da horietako batek eta sindikatuaren baloreekin bat egiten duena kongresuan aurkeztea alderdiek bozka dezaten. Beraz, momentu honetan legea aurkeztu da eta alderdiekin sustapen eta eztabaida prozesuan dago.

Egin duzun txostenan 318 pertonekin hitz egin zenuen. Nolakoak izan ziren elkarrizketak?

Zorte handia dugu sarean lan egiten dugulako. CATSeko langile guztien (bitartekariak, gizarte langileak, psikologoak, medikuak, abokatuak...) laguntza izan dut. Profesional hauek sexu langileekin zuzenean lan egiten dute, eta sexu langile bat lokaleira sartzen zen bakoitzean inkestan parte hartzea eskatzen zitzaien. Gehienak parte hartzea onartzen zuten. Gainera, CATSen ere prostituzioa egitean den klubaren eta pisuen ibilbideak egiten



Irene Adan Ginebrako Aspasi Elkartearen, Griseldis Real Aspasiaren sortzailearen irudi batekin. EVA-LUNA PEREZ

dira zuzeneko laguntza emateko, eta haiei ere inkestan parte hartzea eskaintzen zitzaion. Orduan, kontaktua nahiko erraza izan zen. Sexu langileek konfiantza handia dute; harreman handia dute erakundearekin. Inkestak ez ezik, eztabaida taldeak egon ziren eta modalitate desberdinetako sexu langileak parte hartze- ra gonbidatu genituen. Helburua aniztasuna islatzea zen; jatorri desberdinetako pertsonak, adinak, lan modalitateak... Kontestuaren arabera iritzi desberdin asko nahi genituen. Emaizak ezin

"SEXU LANAREN ANIZTASUNA ISLATZEN DA, IRUDI HOMOGENEOAREN AURREAN"

"BADIRUDI SEXU LANGILEA EZ DELA EZER GEHIAGO; AUZOKIDEA, AMA ETA ABAR ERE BADA"

hobeak izan ziren. Eztabaida giro oso ona sortu zen, eta txosten honen balore handienetako bat da sexu lanaren barruan aniztasuna erakusten duela. Askotan prostituzioaren irudi oso homogeneo batekin definitzen da; biktima bat bezala, pasiboa eta abar. Badirudi pertsona horiek bakarrik sexu langileak direla, bere bizitza gehiago ez balitz bezala. Baina auzokideak, amak eta abar dira ere, guztiok bezala. Txosten honek errekonozimendu hori ematen du, aniztasun hori, eta ongi islatzen du.

Jasotako emaitzak espero zenituen?

Harritu ninduen datu bat izan zen gehienek sexu lana lan bat bezala ikusten dutela da. %87k uste dute sexu lana lan bat dela, eta harrigarria da ere haietako askok beraiendako lan hobeago batengatik sexu lana utziko zutela. Hala ere, lana aldatzea nahi izateak ez du esan nahi sexu lana lan bat bezala ikustea. Niretako ere oso interesgarria izan zen gehiengoak neurri punitiboaren kontra daudela: %89 prostituzioaren debekatzearen kontra daude, %89 klubaren eta pisuen debekatzearen kontra eta %82 bezeroak eta langileak zigortzearen kontra. Haien ustez isunak eta zigorgarriak ez dute errealitatea aldatzen. **Ikerketak biolentziak aipatzen ditu. Zeintzuk dira pairatzen dituzten biolentzia horiek?**

Sexu langileek biolentziak gehienbat migrazio legeekin, poliziaren biolentziarekin eta justizia sartzeko arazoekin identifikatu zituzten, baita bezeroak eta enplegatzailak ere, noski. Horrelako zerbait aterako zela espero genuen, azken finean, CATSeko egunero emakume hauekin lan egiten dute, eta aurretik nahiko identifikatuta zeuden. Oso interesgarria izan zen %60k onartu zuela poliziaren biolentzia jasan izan dela, eta kaleko sexu langileen kasuan %71k. Biolentzia hauek lantokian egindako sarekadak, hitzeko tratatu txarrak, isunak, atxilotetak eta kanporatze espedienteen irekiera dira. Mundo Movimiento GKEk egin zuen txosten baten arabera, Alucheiko CIEan egiten du lan, eta jakinarazi zutenaren arabera 2022an bertan zeuden emakume migranteen %53 sexu langileak ziren. Askotan poliziak pertsona hauek salatzen dituzte kaletik ibiltzeagatik, batzuetan etxera itzultzen ari direla. Klubetan redadak egiten dituztenean egoera administratibo irregularrean daudenak bilatzen dituzte ere. Hortaz, biolentziak arrazializatuarekin eta transexualekin handitzen dira. Emakume transexualek ere biolentzia handia jasotzen dute, adibidez, identifikatzen ez diren izen batekin deitzen dituzte edo mari-ko bezala irainak esaten dizkiete poliziei. Justiziara sarrera ere arazo bat izan ohi da, komisaldetik pasatzea dela sarrera; ez dakite epaitegitara joan daitezke- la zuzenean. Beraz, justiziarako sarrera hori ere zaildu egiten da.

HURRENGO ORRIAN JARRAITUKO DU »

« AURREKO ORRIAN HASI DA

Beraz, epaiketetara joan behar dira zuzenean?

Sexu langileak zuzenbide sujetuak dira, edozein hiritar bezala. Orduan, delituak jasaten dituztenean, legeak zigortu behar ditu. Sexu langile bati lapurtzen badiote, lapurtu diote. Berdin dio zertan lan egiten duen. Delitua berdina da, lapurketa. Arazoa da egoera administratibo irregularrean daudenean salatzeraz joaten direnean kanporatzeko arriskuan jartzen direla. Horregatik, askok ez salatzea nahiago dute. Sexu langile batek kontaktu zigun lan egiten ari zenean gazte talde batek balin pistola batekin tiro egin ziotela eta hospitalera joan zen, ondoren komisaldegira salaketa jartzera, eta bertatik kanporaketa espediente batekin ateratzen. Hau da, langileak babesgabetasun egoera batean daude, eta eraso-tzaileak zigorgabe gelditzen dira. Sexu langileek oso sinesgarritasun gutxi dute polizian; lapurtzen dietenean edo eraso bat jasaten dutenean, askotan ez diete sines-te. Biolentzia lanaren parte bat izango balitz bezala ulertzen dute eta poliziaren marko horren baitan normala da lan horretan hori jasatea. Zenbait emakume esan zuten poliziak haien dirua eta dokumentazioa kendu ziotela, baita diruarekin eta sexu lanekin extorsionatu zituztela ere, kanporaketa espediente bat ez jartzeko. **Eta horretan laguntzen du CATSek, ezta?**

Bai, isunak errekurritzeko laguntza ematen dugu, epaileetara joateko laguntza eta askotan besterik gabe eskubideak azaltzen dizkiegu. Badira langileak benetan uste dutela sexu langileak izategatik eskubiderik ez dutela, adibidez, jasaten dituzten delituak salatzeako eskubidea. Askok ez zekiten sexu harreman batean baimenik gabe preserbatiboa kentzea sexu eraso bat dela; inork ezin du preserbatiboa baimenik gabe kendu. Orduan, CATSen lanetako bat hori da, eskubideak dituztela azaldu eta jasaten dituzten delituak salatu.

Txostena egin ondoren, zein da hurrengo urratsa?

Informe hau bereziki garrantzitsua da politikariekin hitz egiteko. Haiek beti datuak eskatzen dituzte, eta txosten honek datuak ematen ditu eta bai maila politikoa bai jendartean sentsibilizazioan lagun dezake; bereziki marko juridikoa egiteaz arduratzen diren



Madrilen hil diren sexu langileen omenaldia sexu langileen elkarteekin. UTZITAKOA

horiendako baliagarria da. Oinarrian, eztabaidarako tresna bat da; sexu lana estigmatizazio eta indarkeria hauek ikusarazten laguntzen du. Kontuan izan behar da, estigmatizazioa ere osasun arloan eta gizarte zerbitzuetan ematen dela. Orduan, trebakuntzak egiteko ate bat irekitzea izan daiteke. Osasun eta gizarte langileen artean ikusarazteko ere oso garrantzitsua dela beste laguntza tresna batzuk aurkitzea eta estigmatizazioa aurreritziatzen ez erortzea. Izan ere, laguntza hauek askotan oso estigmatizatuta dauden profesionalen esku egon dira, eta hori askotan sexu langileak duen arazoan enfokatu beharrean, profesionala prostituzioa arazo bat dela zentratzen da. Adibidez, emakume bat bere etxean biolentzia jasaten zuena gizarte zerbitzuetara joan zen eta esan zien pentsatzen ari zela sexu lanak egitea etxe horretatik ihesegiteko. Gizarte langileak esan zion hobe zela beste lan bat aurkitu arte irautea, uste duelako prostituzioa emakume bati gerta dakioken okerrera dela. Baina askotan prostituzioa emakume askorendako ez da hondoa jotzea; nahiz eta ulertzeko zaila izan daitekeen, prostituzioa askotan aurrera egiteko modu bat da. Esaterako, badira emakume asko egoera oso prekarioan bizi zirela,

beste lan prekario batzuetatik etortzen zirela, eta esaten ziguten haiek profesionalki beste lan batzuetan garatu zirela, eta lan horietan esplotatuak izan direla eta ez zutela diru nahikorik irabazten. Azkenean haiendako proposatuzioan aritzea egoera hobereena zen. Gehiago edo gutxiago gustatu. Orduan, guk emakumeen lan eskubideetan jartzen dugu fokua. Horregatik aliantza handiak ditugu Kellyen sindikatuekin, etxekolanak eta zaintza sindikatuekin, sasoikakoekin... Uste dugulako subjektu berdinak garela.

Esplotazio modu desberdinak...

Patriarkatuak ez du bakarrik prostituzioa eragiten, feminizatutako lan gehienetan eragiten du. Pobreziarekin eta migrazioarekin zerikusia da. Sexu langile askoren arazo handiena estatus migratorioarekin dute. Migranteek ez dituztenean mugak zeharkatzeko bide seguruak eta legalak, giza trafikoen sareetara joan behar dute, eta prozesuan, gainera, zorpetzen dira. Hori mahai gainean jarri nahi dugu; pertsonak defendatzen dituzten legeak nahi ditugu, eta horretarako ez dugu prostituzioa debekatu behar. Atzerri-tartasun legea abolitu behar dugu; guztiz birformulatu behar da. Gizakien eskubideak gehien urratzen dituen lege asko daude. Argi


utzi nahi dut guk ez dugula prostituzioa defendatzen eta ez dugu bezeroen edo gizonen sexua kontsumitzeko eskubidea defendatzen. Guk defendatzen dugu sexu langileek lan eskubide eta eskubide sozial eta garantia gutiekin lan egin behar dutela defendatzen dugu.

Arbizutik Murtziara sexu langileak laguntzen dituen erakunde batean lan egitera. Nola eta zergatik?

Madrilgo Universidad Complutensen antropologia ikasi nuen, eta ikasketetan aztertzeo eta landa lan bat egiteko gai bat aukeratu behar duzu. Prostituzioa atentzioa deitu zidan iruditzen zaidalako azken 50 urtetan eskubide gutxien aurreratu dituen

"EZ DUGU SEXUA KONTSUMITZEKO ESKUBIDEA EDO PROSTITUZIOA DEFENDATZEN"**"SEXU LANGILEAK DISKURTSO FEMINISTA ASKOTATIK KANPO GELDITZEN DIRA"**

kolektibo bat dela. Hau da, kolektibo gehienetan, emakumeak, transexualak eta LGTBI+ kolektiboa orokorrean, eskubideak konkistatzen joan dira; oraindik konkistatzeko eskubide asko falta dira, baina beste batzuk borroka eta antolakuntzaren bidez lortu dira. Baina sexu langileak diskurtso feminista askotatik kanpo daude. Eztabaida izaten jarraitzen du sexu lana lan bat bezala ikustea edo ez. Benetako iskanbilak sortzen ditu feminismoaren barruan, eta sexuaren tabuarekin erlazioz gertatzen da. Gaia asko interesatu zitzaidan eta OTRAS Sexu langileen sindikatuarekin lanean hasi nintzen. Erakunde honen helburua despenalizazioa da eta hein handi batean haien lana politikoa da. Haren bidez CATS ezagutu nuen; GKE honen helburuak antzekoak dira, baina lan egiteko moduak desberdinak. Lan egiten hasi nintzen eta proiektu honetan parte hartzeo aukera izan nuen. Orain Suitzan nago, Ginebran, Aspasiex sexu langileak laguntzen dituzten erakunde batean lan egiten dut. Beste herrialdetan nola funtzionatzen duen eta zeintzuk diren modelo hobereenak ikustea asko interesatzen zait, guztiendako eskubide hobereenak eman daitezkeen urratsak emateko.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Irurtzundik, Abya Yala eta gu

Irailaren 26an Pikuxarreneko ganbarazelaian ilunabar mamitsu eta zinez xarmentaz gozatu ginen hara bertaratu ginenok.

Garabide, Aretxabaletan (gipuzkoarrean) egoitza duen Gobernu Kanpoko Elkartea bat da; haren xedea hizkuntza gutxituen sustatze lanetan eta garapen proiektuetan aritzen diren kolektiboak laguntza eta trebakuntza eskaintzea da. Ameriketako hizkuntza indigenen aktibistek parte hartzen dute Garabideren formazio jardunbideetan: aimara, guarani, kitxua, maia, kreolera, nauhatl, maputxe, nasa... Baita Rif-eko tamazight-ak edota kurdistandarrak ere.

Hamaika errealitate eta egoera, baina erronka eta ahalegin bat eta bera: nork bere hizkuntzari bultzada ematea, eta euskaltzaleok ongi dakigunez, ez da inondik inora ere lantegi samurra. Hiru elkargotako partaideak izan genituen hizlari: Yukatango hiztun maia, Ekuadorko hiztun kitxua eta Kolonbiako hiztun nasa.

HAMAIIKA ERREALITATE ETA EGOERA, BAINA ERRONKA ETA AHALEGIN BAT ETA BERA

Gutxitze bidean eragin duten faktoreak aipatzean bat egin zuten: diskriminazioa, mespretxua, lotsa, bazterketa, transmisiorik eza... Biziberritze eragileak, ordea, ziren bertan: harmonia, erresistentzia, lurrarekiko

lotura, komunitatearen indartzea.

Bi hizlariaren kasuak bitxiak dira, haien inguruan bertako hizkuntza dakiten haur bakarrak baitira haienak. "Norekin solastuko dira gure hizkuntzan?" zioen aita batek. Tafallako ikastola bisitatu zutenean haurren artean euskara inguru erdaldun batean tokia hartzen ari dela ikusi zuten bertatik bertara. Hau kontatzean malkoak zerizkiola hunkitu zen Yukantango gizona, eta entzuleak ere harekin hunkitu ginen.

Bejondeizuela hizkuntza aktibistoi eta Garabide, ikastaroa emankorra gerta dadila, zuekin gaude beti.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Nik itzultzea erabakitzen dut!

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Azken datuen arabera, Nafarroan trafiko istripuetan alkoholaren eta beste droga batzuen presentziak behera egin badu ere, datuak ikaragarriak dira oraindik. Asteburuetan zirkulazio istripu batean bizia galtzen duten pertsonen ia erdiek alkohola edo bestelako drogak kontsumitu zituzten.

Datu hauek gazteak zein helduak sentsibilizatzen jarraitzea behartzen gaituzte. Hau ez da soilik gazteriarri eragiten dion gai bat. Istripuak eta hauen ondorioak murriztu edota ekiditeko dugun erantzunkizunari aurre egin behar diogu arlo pertsonalean zein komunitarioan.

Prebentzio programetatik lanean jarraitzen dugu zirkulazio ezbeharrak eta haien ondorioak murriztea helburu nagusi duten kanpainenetan, pertsona guztiak bolantean jarrera arduratsua hartzera

animatuz. Kanpaina hauek udan areagotu egiten dira, baina urte osoan zehar prebentzioak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu.

Berriro diogu prebentzioaren eta autobabesaren kultura sustatu behar dela, herritarrak arriskuen jakitun izan daitezen eta gure aisiaz gozatzen gaudenean ere arduraz jokatzeko. Horrela, gurea egiten dugu azken osasun kanpainaren leloa, non bakoitzak dugun erantzukizunean eragiten duen: "JAIA ITZULTZEA DA. AUKERATU ITZULTZEA".

Pertsona bat etxera itzuli ez izana nahikoa arrazoi da herritarrak kontzientziatzen jarraitzeko. Azken kanpaina honek alkoholemia tasari buruzko legediaren aldaketaren iragarpen batekin kointziditu du eta lege berria iragarri baino lehen sortzen ari den zalaparta gure ustez, deigarria da.

Ez dugu baloratuko legea gogortzeko beharra dagoen ala ez, baina, gutxienez, horren inguruko hausnarketa egin nahiko genuke. Tasa jaisteko legea aldatu den bakoitzean, kontrako jarrerak egon dira, beti gure erabakiak hartzeko askatasun indibiduala eskatuz. Baina, bitxia bada ere, erabaki horrek besteei ere eragiten die. Bideberrian, bizitzan bezala denok gaude konektatuta eta norberak egiten duenak eragina izan dezake besteengan.

Batzuetan kezkatzen gaituena da: zenbatekin positibo ematen dugun, zenbat puntu kentzen dizkiguten... kaña batekin, 2 kañekin... Kontua ez da zenbat har dezakegun gidatu ahal izateko, baizik eta edaten dugunean eta autoa hartzen dugunean hartzen dugun arriskua.

Garrantzitsuena ez da isun bat saihestea, istripua eta honen ondorioak saihestea baizik.

Gurekin harremanetan jartzeko

618 882 675

GUAIXE





www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langanika
info@gkomunikazioa.eus
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Ziurgabetasuna dute Sunsundeguiko langileek

Aldi baterako lan erregulazio espedientea indarrean da. Soldata agorrilean kobratu zuten azkeneko aldiz eta, gauzak ongi, hurrengo diru sarrera abendua izanen da. Enpresaren etorkizunaren inguruko informazio bat bera ere ez dute

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU
Sunsundeguiko aldi baterako lan erregulazio espedienteak lastailaren 11n sartu zen indarrean, ilbeltza- ren 19ra arte. Enpresako 380 langileetatik 320ri eragin die espedienteak. Kanpo daude 60 urte baino gehiagoko edo aurrejubilituta dauden langileak, haien pensioen kalkuluan eraginik ez

izateko. Kanpo daude ere falta diren autobusak egiten ari direnak, eta bulegoetako hainbat langile.

Enpresa batzordeko kideek gehien errepikatu duten hitza ziurgabetasuna da. Alde batetik, jaso zuten azken soldata agorri- lekkoa izan zelako. Iraileko nomina eta lastaileko 11 egunak ez dituzte kobratu. Eta egiteko

dauden autobusak saldata kobratuko duten ere ez dakite. Langileek Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikotik soldataren %70 jasoko dute. Baina aurreneko diru sarrera, gauzak ongi, abenduan izanen da. Beraz, hiru hilabete kobratu gabe egonen dira. Eta eguneroko gastuak, hipotekak eta bestelakoek ez dute barkatzen. Aurrezkiak ez dute- nek inguruan babes sarea osatu beharko du aurrera egiteko. Bitartean, enpresak espedienteak ezarri langileekin zorra pilatzea saihestu du. Zuzendaritzak hitz eman du udako aparteko soldata, estra, eta oporren %100 errespetatuko dituela.

Argi dute egoera zenbat eta gehiago luzatu orduan eta okerragoa izanen dela. Inbertitzailearen inguruko berririk ez dute. Mikel Irujo Amezaga Industria kontseilariak jakinarazi zien inbertitzaile batekin harremana nahikoa aurreratuta zegoela, baina eskaintza loteslerik ez zegoela. Aste hau gakoa izan omen zitekeen. Negoziazioak ongi joatea espero dute, baina gaur egun edozein eszenatoki posible dela argi dute. Bitartean, langile gutxi batzuk beste lan batzuk opatu eta enpresa utzi dute.

Etorkizunaz

Sunsundeguin inbertitzaile bat sartuz gero zer gerta daitekeen ez dute gehiegi adierazi nahi kontsultatu ditugun enpresa batzordekideek, horrelakorik ez baitago oraingoz. Aholkularitza enpresa batek langile gehiegi zeudela zioen txosten batean. Baina horretaz enpresa zabaldu eta gero hitz egingen luketela nabarmendu dute. Gaztigatu dute metalgintzako hitzarmena indarrean dagoela enpresan, eta akordio batzuk dituztela 2027ra arteko iraupena dutenak. Printzipioz lan baldintza horiek errespetatu beharko lirateke. "Baina ziurgabetasuna erabatekoa da!"

Kronologia

2009-09-10 Sodenak bideragarritasun plana enpresa batzordeari (UGT, ELA, LAB eta independentea). Besteak beste jaso zen: hilaren 22an bukatzen zen enplegu erregulazio espedienteak luzatzea; kaleratzerik ez izatea; langileek konpromisoa izatea malgutasun eta emate datak betetzea edota zuzendaritza taldean gobernuak konfiantzazko pertsonak sartzea.

2009-09 Enpresaren finantza porrot egoetatik gertu zegoen eta Nafarroako Gobernua, Sodenaren bidez, ardura hartu zuen. Enpresak 16 milioiko zorra zuen.

2009-11-18 Finantza arazoa zela eta Sunsundegui hornitzaileei zorraren %30 barkatzea eta urte bat barru ordaintzea eskatu zuten.

2010-12-02 Zuzendaritzak 2011n soldata %5 murriztea proposatu zuen.

2011-02-10 Sunsundeguiendako lan egiten zuten Montajes Zapardi eta Conhersa enpresak haien lan karga galdu zuten, lana beste enpresa batzuei eman zielako. Ondorioa, 10 kaleratze.

2011-10-26 Sunsundegui zuzendaritzak eta langileen ordezkarien gehiengoak (UGT, ELA eta independentea) enplegu erregulazio espedienteak sinatu zuten, LABek ez. 40 kaleratze jaso ziren espediente horretan. 21 urte baterako kaleratu zituzten, epea pasata bueltatzeko baldintzarekin. Espedienteak 2012rako 96 eguneko erregulazioa jaso zen.

2011-10-27 Gobernua Castrosua enpresa galiziarrekin harremanetan zela argitaratu zuen Diario de Navarrak. Konfidentzialtasuna faltagatik Castrosuak atzera egin zuen. ELAk eta LABek kezka azaldu zuten.

2011-11-10 Sodenak euro baten truke erosi zuen Sunsundegui. Lourdes Goikoetxea lehendakari ordeak jakinarazi zuenez,

Nafarroako Gobernuaren erosketak "aldi baterako" da, "enpresaren etorkizuneko jabetza zehaztu arte".

2011-11-24 Montajes Zapardi enpresa hornitzaileak hartzekodunen konkurtsoa eskatu zuen. Ilbeltzean 11 langileek kontratuen akabera eskatu zuten.

2012-07-27 Akordioa onartu zuten langileek eta UGTk eta LABek, ez ELAk. Besteak beste, %10eko bata besteko soldata murrizketak eta kaleratzeak beharrean aurre-jubilazioak eta sustatutako bajaran izanen zirela hitzartu zuten.

2012-12 Kale egin zuen Sunsundeguiendako inbertitzaile bat opatzeko saiakerak eta Sodenak enpresarendako hartzekodunen aurre-lehiaketa aurkeztu zuen. Hamahiru enpresa hornitzaile, 115 langile, kobratu gabe zeuden.

2013-01-11 Sodenatik jakinarazi zen Sunsundegui ez ziola babes ekonomiko gehiago emanen.

2013-01-18 Enpresa batzordeak deituta, manifestazioa egin zen. Gobernuak azalpenik eman gabe enpresa aurre-konkurtsoan jarri zuela salatu zuten.

2013-02-08 Nafarroako Gobernuak Sunsundegui aldeen bideragarritasun plan bat aurkezteko epemuga zen egunean bertan, akordioa adostu zuten zuzendaritzak eta langileen 6 ordezkari (UGTko 5 eta independentea), gainontzeko 7ak (ELAk 4 eta LABeko 3) ez zuten sinatu.

2013-02-20 Lourdes Goikoetxea lehendakari ordearen iritziz, Sunsundeguiaren egoera "kritikoa eta konplexua" zen. Aitortu zuen Nafarroako Gobernuaren laguntzarik gabe irauteko oso aukera txikiak dituela. Sodenak Sunsundeguin adostutako bideragarritasun plana aztertzen ari zela jakinarazi zuen. Enpresak 2012an 193 autobus saldu zituen eta "300 bus ez badu saltzen zailtasun handiak ditu".



IRAILAK 21-25

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiarekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Uztailak 21 Gorka izagirre txirrindularia

Uztailak 22 Karlos Flores Mendinueta lan orientatzailea

Uztailak 23 Bertso saioa (Bertsoa.eus) eta 'Makarriket' podcasta

Uztailak 24 Mataperros musika taldea

Uztailak 25 Iturrock eta agenda berezia

2013-03-08 Lehendakari orde Lourdes Goikoetxeak, Sunsundeguiko zuzendari-gerente Jose Ignacio Murillok eta MCA-UGTko zuzendari nagusi Lorenzo Riosek bideragarritasun plana aurkeztu zuten Iruñean. Enpresa batzordeak ez zuen adostutakoaren berri. Sodena Sunsundeguitik aterako zen eta gobernua haren zorraz arduratuko zen. 65 kaleratzeak iragarri zituzten.

2013-03-11 Langileek akordioaren alde egin zuten. ELAtik langileei egindako "xantai handia" salatu zen. "3 eguneko epean halako erabakirik hartu". LABekoek "plana enpresa batzordearen gehiengoaren bizkar" negoziatu zela salatu zuen. "Plana babesten duen gutxiengo sindikalak asanblada behartu eta egunean bertan erabakiarazi: hau edo ezer ez planteamendua egin zuen". Hurrengo egunean, presiopean, ELAko kideek adostu zuten haietako batek sinatzea, enpresa batzordearen oniritzia izateko.

2013-04-04 Enpresak 40 langile kaleratu zituen. Haietako batzuk 2010ean ere kaleratuak izan ziren, eta enpresak ez zuen kontuan hartu hurrengo espedientean azkenak sartzeko akordioa. ELAk eta LABek diskriminazio sindikala ikusi eta epaitegira jo zuten.

2013-04-14 Sunsundeguiaren enpresa hornitzaileek zorraren %30 ez zuten kobratuko, eta gainontzekoa bi urtetan ordainduko ziela esan zuen zuzendaritzak.

2013-05-21 Enpresa zuzendaritzarena (%51) eta langileen (%49) esku izatera pasa zen. Alde bakoitzak milioi bat euroko ekarpena egin zuen.

2013-09-17 Langile ohi batek bere buruaz beste egin zuen.

2014-10-27 Sunsundeguik Madrilen SC5 eta SB3 modelo berriak aurkeztu zituen.

2015-06-15 Enpresaren bi proiektuk Nafarroako Gobernuaren Ikerketa eta Garapen teknologikoaren diru-laguntzak jaso zuten.

2015-11-05 LABen iritziz, zuzendaritza berriaren bideragarritasun plana martxan jarri eta bi urtera antolakuntza



Enpresa batzordeko gehiengoak udaletxe parean egindako elkarretaratzea. ARTXIBOA

falta eta langileei ordaintzeko arazoak segitzen zuten.

2016-03-11 Enpresak 411 autobus karrozatzea aurreikusi zuen, 52 milioi euroko fakturazioa. 2015ean 38 izan ziren (276 autobus) eta 2014an 28 (260 autobus). Sunsundeguik 325 langile zituen.

2017-04-28 LABek salatu zuen enpresan 330 langileen %42 behin-behinekoak zirela. Kontratazioetan egiten zen "iruzurra" salatu zuen.

2017-06-12 Zuzendaritzak bere inbertsio plana langileek hartu beharreko konpromisoekin lotu zuen. UGT alde agertu zen, baina enpresa batzordean gehiengoak zuten ELAk eta LABek ez zioten oniritzirik eman. Ezezko horri enpresaren %49aren jabetza zuten 135 akziodunen ezezkua batu zitzaion.

2019-02-19 Enpresak jakinarazi zuen 111 langile kontratatuko zituela urte hartan.

2019-07-26 Sunsundeguik 7 milioi euro inbertitu zituen lantegia handitu eta hobetzeko. Horrek autobusak karrozatzeko duen gaitasuna bikoiztu zuen. Ekonomia Garapeneko lehendakari-orde Manu Aierdi bisitan izan zen.

2021-06-21 LABek, CCOOk eta ELAk deituta, lan eta etorkizun duina eskatzeko langileek

lantegian kontzentrazioak egin zituzten hiru astez. 15 minutuko protesta bi ordukoak izatearen kontrako botoa eman zuen batzarra, eta protesta motzarekin segi zuten.

2022-03-23 UGTk Sunsundeguiaren enplegua egonkortzea eta erosteko ahalmena berreskuratzea eskatu zuen. Aurreko asteetan LABek, CCOOk eta ELAk enplegua bermatuko duen etorkizuneko plan bideragarria eskatu zuten.

2022-05-12 LAB, ELA eta CCOO sindikatuen agerraldia atzera bota zuten UPNk eta PSNk, antza, UGTk hala eskatuta. Horren aurrean LABeko delegatuek Nafarroako Parlamentuan Sunsundeguiaren etorkizunarekin duten kezka azaltzen duen idatzia erregistratu zuten.

2022-06-20 Sunsundeguiko akziodunek 2022-2027 bideragarritasun planari argi berdea eman zioten. Helburuak ziren "eskaera zorroak handitzea, karrozeria berriak eta etorkizunerako ereduak garatzea (elektrikoak barne), enplegua berreskuratzea, Europako beste merkatu batzuetara hedatzea, produktibitatea hobetzea, digitalizazioa eta lan eta ingurumen segurtasuna indartzea".

2023-01-25 Sunsundeguik 320 autobus egiteko aurreikuspena zuen.

2023-05-04 Sunsundeguik eta Volvok aurreakordioa itxi zuten. Haren azken belaunaldiko autobusak karrozatuko ziren Altsasun.

2023-05-08 Bi enpresek eta Nafarroako Gobernuak lan plana zehazteko bilera egin zuten.

2023-08 Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatuta, eta Sunsundeguik bere plantilla pixkanaka handitzeko, zazpi ikastaro hasi ziren. Parte hartu zuten 72 ikasleetatik lastailean 31 lanean zeuden. Hamabost ikastaro aurreikusi ziren, 220 ikaslerendako.

2023-10-24 Volvo Busen eta Sunsundeguiaren arteko akordioa itxi zen Altsasuko lantegian. Nafarroako Gobernuak kideak lekuko izan ziren.

2023-12-19 Sunsundeguik altxortegi arazoak zituela jakin zen.

2023-12-21 Nafarroako Gobernuak onartu zuen Sodenak Sunsundeguiari lau milioioko mailegua ematea.

2024-01-17 Nafarroako Parlamentuko Industria Batzordea Sunsundegui izan zen.

2024-02-06 Langileek "lan eta etorkizun" duina eskatu zituzten

bilkura bidez, ilbeltzeko nomina osoa ez zutelako kobratu.

2024-02-07 Sunsundegiko enpresa batzordea Mikel Irujo Amezaga Industria eta Trantsizio Ekologikoko eta Enpresa Digitaleko kontseilariarekin, Industriako zuzendari nagusiarekin eta Sodenako bi arduradunekin batzartu zen.

2024-04-22 Jose Ignacio Murillok Sunsundeguiko zuzendari exekutiboa izateari utzi dio. Behin behinean haren lekukoa Felix Aramendiak hartu zuen.

2024-05-07 Sodenak 6 milioi euro arteko mailegua ematea onartu zen. Aurretik 6,4 milioi euroko mailegua emana zion.

2024-07-08 Volvo eta Sunsundeguik hitzartu zuten lan plangintza ez zela bete eta bideragarria ez zela ikusita, aldeak akordioa eteteko ados jarri ziren.

2024-07-17 CCOOk Sunsundegui kasua ikertzea eta erantzukizunak argitzea eskatu zuen. Gainontzeko sindikatuen iritziz, "administrazio kontseilu berriak konfiantza tarte bat behar du enpresaren joera aldatzeko".

2024-07-29 Akziodunen batzar orokorrean administrazio kontseiluak jakinarazi duen eskaerak bazituztela, baina finantza egoera "oso delikatua" zela.

2024-09-17 Sunsundeguik jakinarazi zuen zordunekin hiru hilabeteko negoziazio aldia hasi zuela. Industria kontseilari Mikel Irujo Amezagak jakinarazi zuenez, "enpresaren finantza egoera izugarri delikatua da". Guztira 48,8 milioi euro zor dituela jakinarazi zuen.

2024-10-04 Etxarri Aranazko enpresa hornitzaile batek 40 langile kaleratu zituen. Sunsundeguik hornitzaileei 8,9 milioi euro zor dizkie.

2024-10-08 Enpresa batzordeko gehiengoak (UGT, LAB eta ELA) deituta, langileek lantegian protesta egin zuten iraileko nomina kobratu ez zutelako.

2024-10-11 Aldi baterako enplegu erregulaziorik espedientearen negoziatzeko epea zuzendaritzaren eta enpresa batzordearen arteko akordiorik gabe bukatu eta indarrean sartu zen.



Unai Irigoien Claver, Juan Larrea Etxeberria, Enaitz Larrion Sanz, Patxi Arakama Irigoien eta Unai Urrestarazu Cerdan.

"Bigantxak askatzea nahi dugu, haiei ixkin egiteko"

ENAITZ LARRION SANZ ETA JUAN LARREA ETXEBERRIA ZEZENZALEAK

Hamabost altsasuarrez osatutako taldeak udalari proposatu dio heldu den urteko festetan, bi egunetan, bigantxak askatzea

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Bateko eta besteko entzierroetan laster egiteko mugitzen da gazte talde bat. Herrietako zezen festetan gero eta zaletasun handiagoa sumatzen dute haien inguruan. Eta Altsasun halakoak nahi litzuketelako, udaletxean proposamena erregistratu dute. **Festetan bigantxak jartzeko eskatuz mila sinadura zuek jaso zenituzten?**

Juan. Ez, ez gara gu izan. Duela 3 hilabete inguru, 13 urteko kua-drilla bat hasi zen sinadurak

biltzen. Gu handik hilabete batera konturatu ginen sinadura bilketa hori egin zela. Eta herriko bospasei lagunen artean gaia mugitzea erabaki genuen.

Gaztetxoek erantzunik jaso duten badakizue?

"HERRIETAKO ZEZEN FESTEK PARTE HARTZEKO MODU ANITZAK ESKAINTZEN DITUZTE"

Enaitz. Ez da erantzunik egon. Haiek ez zekiten gauzak nola egin, eta ez zuten udaletxean instantzia aurkeztu. Baina erregistro hori hor dago. Guk gehiago dakigunez, eskaera egiteko instantzia udaletxean aurkeztu dugu.

Beraz, taldean antolatu zarete?

J. Hasieran lauzpabost elkartu ginen, baina orain 15 edo 16 lagun gara. Taldekoak saiatu gara informazioa bilatzen eta biltzen. **Mila sinadurak taldea sortzeko bulkada izan ziren?**

J. Proiektu hau sortzeko bulkada hori izan zen, bai.

Altsasun bigantxen tradiziozik badago?

E. Bai, badago. Jarri eta kentzen ziren zezen plaza ere jartzen zuten XX. mendeko 70eko hamarkadan. Zehazki, Kale Txiki, Erkuden eta Altzania kaleen artean jartzen zen, gaur egun La Caixa bankua dagoen tokian. Plaza hartan bigantxak askatzen zituzten. Zumalakarregi plazan ere zezen plaza jarri zuten hainbat urtez. Festetako arratsalde guztietan zegoen festa herrikoi hori. Gainera, Duela urte dezentetik sokamuturrerako ohitura zegoen (1996an kendu zen egitarautik). Bestalde, Altsasun behien kartzela izeneko eraikuntza dugu. Etxe hartan sokamuturrean aritzen ziren bigantxak gordetzen zituzten. Amandrea plaza aldeko atletik sartzan zituzten, eta sokamuturrerako Zubeztia kaleko atletik ateratzen ziren. Sokamuturra Beti Iaten peñak antolatzen zuen Zubeztia kalean. Bigantxak ihes ez egiteko Zubeztia kalea bost tokitan ixten zen: San Pedro bide kalean, Gurutze Saindua kalean, Lezea tabernaren inguruan, Zubeztia plaza eta Foru plaza artean eta Gautxori tabernaren parean. Sokamuturra gehienetan herriko gazteek "so-kagilearena" egiten zuten. Hau da, bigantxak pertsonaren bat harrapatuz gero sokatik atzera tiratzen zuten, bigantxak pertsona askatzeko. Bestetik, sokaren laguntzaz bigantxa kamioira eramaten zuten. Azkenik, Altsasuko Peñek Zelandi eskolako patioan "plaza mugikor" bat jarri zuten 2014ko festetan.

Tradizioa bai, eta zaletasunik badago?

J. Bai, gero eta gehiago. Orain dela 3 urte jende gutxi egiten genuen laster entzierroetan eta bestelakoetan. Orduetik hona ikusi da zaletasuna geroz eta handiagoa dela.

Zehazki festetan bigantxak egotea proposatu duzue.

E. Bai, hala da. Lehenengo, 2025eko festetan, proba pilotua gisa, bi egunetan bigantxak egotea eskatu dugu. Baina etorkizuna

"SOKAMUTURRA GERO ETA GUTXIAGO EGITEN DA. BIGANTXAK SOKAREKIN MINA HARTZEN DU"

nean festetako egun guztietan jartzeko asmoz. Proba pilotuarekin ikusiko dugu zenbat jende animatzen den. Eta, horretarako, uste dugu aproposa dela bakarrik bi egunekin hastea.

Noiz jarriko zenituzkete?

E. Gure ustez arratsaldeerdialdean jartzea askoz hobea da, Iruñeko auzoetan bezala. Han 18:00ak inguruan askatzen dituzte bigantxak. Ordu bateko edo ordu eta erdiko kontua litzateke.

Zergatik egon beharko lukete bigantxak festetan?

J. Geroz eta harreman gutxiago dugu maskotak ez diren animaliekin, aziendarekin eta animalia basatiekin. Maskotez aparte, hainbat animaliarekin izan daiteke harremana, eta harreman horiek ez dituen gizarteak pobretu egiten dira. Halako zezen festek beste harreman mota bati forma emateko beharra sortzen du, eta horrek aniztasuna dakar, gizartearen beste hainbat alderditarako ere onuragarria dena.

E. Bestetik, haragi edo esne produkzioan espezializatuak ez diren eta ekoizpen handira bideratuta ez dauden animaliak behar ditugu. Izan ere, animalia mota horiek dira mendian aske bizi-tzeko gai direnak, malkarrak garbi mantendu eta aprobetxatu ditzaketenak. Halakoak dira erakusten digutenak gizakiarengandik erabateko dependentzia ez duten etxe abereak ere badirela oraindik.

J. Gainera, herri osasuntsu, parte hartzaile eta kohesionatuak nahi baditugu, ezinbestekoa adin, genero, klase eta hainbat jatorriko herritarrek elkarrekin biziko dituzten espazioak eta ekintzak egotea. Eta herrietako zezen festak horren eredu dira, parte hartzeko modu anitzak eskaintzen dituzte. Festetako arratsaldetan ez daude ekintza asko eta horrelako jarduera batekin herrian beste bizi bat sortuko litzateke.

Garestia da bi egunetan bigantxak jartzea?

E. Ez dakigu zer den garestia eta zer ez. Guk uste dugu bi egunetarako ez dela garestia. Zizur Nagusian lau egunez daude, ordu eta erdi, eta kostua 12.751.96 eurokoa da. Leitzan bost egunez daude, ordu eta erdi eguneko, eta 23.4400 euro balio du. Burlatan lau egunetan askatzen dituzte bigantxak ordu batez eta 6.983 euro balio du.

Proposameneari aukeraren bat landu duzue?



Kale Txiki, Erkuden eta Altania kaleen artean jarritako zezen plaza. IZOR



Sokamuturra Zubeztia plazan. IZOR



Bigantxa zezen plazan. IZOR

J. Behintzat bi aukera proposatzen dira. Edo aukera bakar bat, Leitzako eredu esaterako. Gastua zein den proposatzen dugu. Ganadutegiekin orduko mila euro kobratzen dute. Bi egunetan eginenez gero, 5.000 euro izanen lirarteke. Horren barruan beharrezko guztia sartzen da.

Hesiak, anbulantziak, aseguruak eta halakoak beharko dira horretarako.

E. Bi aseguru behar dira. Bata ibilbide barruan gertatzen dena segurtatzeko. Eta, bestea, zoritarrez, bigantxaren batek ihes eginen balu, edo halako zerbait gertatuko balitz, ibilbidetik kan-

po gerta litekeena segurtatzeko. Anbulantziak eta medikuak ezinbestekoak dira. Hesiak, lehenengo urtean, beste udal bati aloka dakizkioke bi egunetarako. **Non askatuko zenituzkete bigantxak?** J. Zubeztia kalean, posta bulegoaren eta Koxka tabernaren arteko zatia ixtea litzateke, 240 metro.

"EGUN BATEAN IZUGARRIZKO LASTERRALDIA EGITEN DUZU, ETA EGUN HORI AHAZTEZINA DA"

Kale hori hesitu eta barruan, sokamuturra?

E. Bigantxak askatzea proposatu dugu. Ganadutegia duen batek esan zigun sokamuturra gero eta gutxiago egiten dela. Bigantxak sokarekin mina hartzen du. Gainera, arriskutsuagoa dela uste dugu. Eta animaliarendako okerragoa da.

Jendeak errektortarien pare ibiltzea proposatzen duzue?

J. Bai, hori da, jendea bigantxari ixkin egitera sartuko litzateke, pixka bat dibertitzera.

Udalari txostena aurkeztu ondoren, herriari ere proposamena aurkeztekoak zarete?

E. Hala da. Iortia kultur gunean gaur, 18:30ean. Euskadiko Euskal zezenzaleen elkarteko bi kide ere etorriko dira: Asier Albite eta Maddi Mendibil. Haiek Albara ganadutegia dute eta, gainera, Albite albaria da ere.

Dagoeneko proposamenak Altsasun oihartzuna izan du?

J. Bai. Jendeak badaki zer proposatu dugun.

Bitartean, zuek nola asetzen duzue zuen zaletasuna?

E. Urtean zehar Nafarroako beste herri batzuetara joaten gara: Lizarra, Sanferminak, Tafalla, Tuter... Espainian San Sesbatian de los Reyes (Madril), Alfaro (Errioxa), Cuellar (Segovia)... Hurrengo asteburuan Ondara (Castellon) joanen gara. Bai, leku askotara joaten gara.

Esan dituzun gehienak entzierroak dira.

E. Gu entzierroetara goaz. Baina aurtentafallan errektortarimoduan ibili ginen, eta oso gustura, bai.

Zer sortzen du bigantxa edo zezen baten aurrean jartzeak?

J. Niri, behintzat, adrenalina pixka bat. Hori da ematen duena. Jartzen zara beste animalia baten kontra, aurrez aurre. Adrenalina, urduritasun puntu bat edo ez dakit zer ematen duen.

E. Adrenalina. Eta ikustea animalia hain ederra zure atzetik laster egiten eta zu ere aurrean korrika egiten, esperientzia izugarria da. Egun batean izugarriko lasterraldia egiten duzu, eta egun hori ahaztezina da.

Proposamena jendartean zabalduta, zer espero duzue?

J. Hurrengo urtean festetan, behintzat, egun batez edo bi egunez bigantxak egotea.

E. Hori da. Ez da berdina etxean izatea bigantxa, edo autoa hartu eta ordu erdiko bidaia egitea. Etxean izatea gauza handia da.



Atakondia eskola publikorako bidean. ARTXIBOA

Aurki eskola biomasarekin berotuko da

Energia berriztagarrien erabileran beste pauso bat emanen du Irurtzongo Udalak martxan jartzean

A.A.I. IRURTZUN

Galdara jartzeko espazio egokia izateko, udalak aurrena obra egin zuen. Orain biomasa galdara jartzeko lanean ari dira. Hura jarrita ere, "gas galdara zaharra badaezpada mantenduko dugu. Biomasa galdara berriak inoiz arazoren bat izanen balu edo mantentze lanak beharko balitu, laguntza gisa ordezkiko galdara bat izateko. Gainera, eskolako eraikin berriak bere gas galdara du. Gas azpiegitura guztia eta gas enpresarekin genuen kontratua mantendu behar genituenez, galdara zaharra mantentzea erabaki genuen", azaldu du Unai Razkin Iriarte alkateak.

Galdara berriak biomasarekin sortuko du beroa. Galdarak pelleta edo ezpala erabiltzeko aukera izanen du. "Pelleta erretzen hasiko gara. Baina aztertuko dugu ezpala erabiltzeko zer aukera ditugun". Alkateak gogora-

razi du Etxeberrrik eta Irurtzunek elkarrekiko basoa, fazienda, dutela eta handik urtero egur loteak ateratzen direla. Horietako bat erabil daitekeen aztertu beharko luke udalak.

Berotza 2020 SMk eskuratu du kontratua 205.700 euroren truke (BEZ barne). Galdara finantzatzeko udalak Nafarroako Gobernuaren aurrekontutik 100.000 euro jaso ditu, EH Bilduk aurkeztutako zuzenketa bati esker.

Bestalde, udalak eskolan lanak egin ditu udan. Isolamendu termikoa hobetzeko paretetan eta teilatu azpian zelulosa sartu zen 2021ean, eta horren ondorioz baldosak lasatu ziren. Konpontzeko, udalak ikastetxeko solairu guztietako pasabide eta eskaile-ra guztietako paretak berritu ditu. Lehen fasean lehen solairukoa duela bi urte egin zen eta gainontzeko guztia aurtent. Lanek 32.000 euroko aurrekontua zuten.

Mank-ek estreinako kamioi elektrikoa erosiko du

Sakanako Mankomunitateak %100 elektrikoa den kamioia erosiko du. Ibilgailuak kutxa ireki baskulatzailea eta jasotze plataforma izan beharko ditu. Ibarreko erakundeak jakinarazi duenez, kamioi elektrikoa Utzubar Ekoguneko konpostaje plantan erabiliko da, materiala bate-tik bestera mugitzeko. Bestelako erabilerak ere izan ditzake, esa-

terako, edukiontziak eramatea. Mank-ek kamioi elektrikoa eskuratzeko 145.000 euro (BEZik gabe) bideratuko ditu. Kamioia- ren kostu osoa Nafarroako Hondakinen Partzuergoaren diruarekin finantzatuko du Mank-ek.

Ibarreko erakundeak hondakin bilteta zerbitzurako bederatzi kamioi ditu, trasteak biltzeko kaxa irekiko kamioia eta garbigune mugikorra ditu. Eta heldu den urtean beste kamioi bat erosiko du. Horretarako ere laguntza izanen du.

Bardoitzako aterpea berritzen

Altsasuar talde bat auzolanean Urbasako mendi aterpea berritzen ari da. Auzolanean ari dira eta urtea despeditu aurretik bukatu nahi dituzte lanak herritarren laguntzaz. Egindakoa Gure Etxea eraikinean ikusgai izanen da domekan. Dirua ere jasoko dute

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Urbasan, Bardoitzan, izen bereko aterpea kudeatzen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak. Aterpea 1.060 metroko alturan dago eta 59,4 metro karratuko azalera du. Barruan bi espazio ditu, egongela eta logela, 20 bat pertsonarendako tokia duena. Zegamako Zabaleta artzainak eraiki zuen borda, baina ezkondu eta Andia aldera jo zuen. Borda Pantaleon Arrieta eta Rosa Iparragirrerri saldu zien. Haiek eta bere alabak, Alicia eta Maria Arrate Lucia, maiatza hasieratik Altsasuko festetaraino mendian egoten ziren urtero. Artzain jarduna 1964an utzi zuten. Gerora aterpe bilakatuko zuten eraikina, gaur arte.

Mendi taldeari aterpearen kudeaketan laguntzen hasi ziren hiru gazte altsasuar duela bederatzita bat urte, beti ere, helburu bat argi zutela: "herriarendako zabalik mantentzea". Aterpearen egoera ikusita, premiazkoa ikusi zuten beheko su irekia su itxi bategatik ordezkatzeko. "Sua piztean ke asko ateratzen zen eta arriskutsua bihurtu zen", gazti-gatu dute. Kontatu dutenez, hasiera hartako prozesua gorabeheratsua izan zen, "batzuetan bizi aritzen ginen, motel besteetan". Haiek lortutako bitartekoekin egongela berritzea lortu zuten. Zoruan baldosa berriak jarri eta barruko paretak saneatu eta txuriz margotu zuten guztia.

Azken urteetan haren erabilerak behera egin du. "Baina lortu da erabiltzeko moduan latea. Su berria jarri zenez geroztik, jende asko ez da pasatzen, baina erabilerak du. Batez ere, mendia maite duen jendearena. Aterpea mendia maite dutenendako baita, errespetuz jokatzeko dutenendako".

Bulkada

Haien egitekoa pixkanaka egiten ari ziren, "baina bulkada baten sumatu genuen, auzolanaren premia. Parte hartzea herrira zabaltzea ezinbesteko jo genuen, borda maite dutenen berritze proiektua izan zedin", adierazi dute. Horrekin batera, aterpeak zituen premiak aztertu zituzten, guztiei erantzuna eman ahal izateko. Batekin eta bestearekin asko hitz egin zuten, handik eta hemendik ideiak hartu zituzten eta haien gainean eztabaidatu ere. Ezagutzak dituzten hainbat aditurengana ere jo zuten aholku eta laguntza eske.

Prozesu hori guztia pasa den larunbateko auzolanean mamitu zen: hogeiren bat altsasuarrek Bardoitzako aterpea berritzeko auzolanean parte hartu zuten. Hiru lan zituzten egiteko eta hirurak despeditu zituzten. Batetik, aterpearen teiladura konpontzea eta txukuntzea. Hautsitako teilak berrerrabiltako teilengatik ordezkatu zituzten, eta hondatuta zeuden zatietako teilak aldatu zituzten. Haien azpian asfaltozko geruza isolatzaileak jarri zegoenez, teilatuko lanak horrela despeditu zituzten.

Bestetik, logelan lan egin zuten. "Zaborrez beteta zegoen, ezezgoen erabilgarri. Zegoen zaborra, egurrak eta koltxoiak atera genituen". Horiek eginda, literen metalezko egitura mugitu eta logelako pareta saneatu zuten. "Oraindik ez dakigu margotu edo baldosak jarriko ditugun."

"EZINBESTEKO JO GENUEN PARTE HARTZEA ZABALTZEA, BORDA MAITE DUTENEN PROIEKTUA IZATEKO"

Ideiak hartzen ari gara. Garbi dago lurra txukunduko dugula". Bestetik, litera sistema berrirako ideiak hartzen ari dira. Auzolaneko partaideen iritziz, "garrantzitsua baita familiak edo lagun taldeak bertan lo egin ahal izateko".

Azkenik, egongelan tximinia-ko tutua eta teilatua bat egiten duen tokiko zuloa tapatu zuten. Aldi berean, tximiniako tutuaren atzean, paretara itsatsita, txapa bat jarri zuten eta, ondoren, tutua bera estali zuten. Enpresa batek jarri zuen materiala eta hura soldatzen egon ziren larunbat goizean. Auzolaneko parte hartzaileak giro ederrean aritu ziren.

Egitekoak

Lanak erabat despeditu ez direnez, beste auzolan bat egingen dute. "Urtea despeditu aurretik izanen da". Bitartean, egindako lana erakusgai jarriko dute Gure Etxea eraikinean domekan. Altsasuko Mendigoizaleak taldeak ferietako argazki rallya antolatu du eta aurreko edizioetan ateratako argazkien erakusketan ikusgai jarriko dituzte. "Erakusketaren zati bat aterpeari eskainita egonen da. Auzolanari buruzko bideo bat ikusgai izanen da. Eta jakinik aterpetik jende asko pasa dela, aterpean ateratako garai bateko argazkiak ere ikusgai izanen dira". Beraz, Gure Etxea eraikinetik pasatzen direnak lanen berri jaso eta auzolangileei laguntza emateko aukera izanen dute. "Orain arte gure poltsikotik jarri dugu konponketarako dirua. Lanak aurrera egiteko, jendea dei egiten diegu jarriko dugun eltzetsuan dirua sartzeko. Bide batez, auzolanean parte hartzeko deia egiten dugu ere".



Auzolanean parte hartu zutenak. UTZITAKOA



Jose Mari Bengoetxea eta Bienvenido Urdaniz, 70eko hamarkadan. UTZITAKOA



Txema Bengoetxea, Luis Mari Lopez eta Maite Perez 70eko hamarkada hasieran.

Alokairurako etxeen lanak azaroan hasiko dira

Galtzada kaleko 6. zenbakian 21 etxebizitzako eraikina jasoko da. Nasuvinsatik jakinarazi dutenez, lanek hogeitazazko hilabete iraunen dute eta 2026an despidituko dira. Nasuvinsaren alokairu poltsaren bidez banatuko dira etxeak

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU
Nasuvinsak, Nafarroako Gobernaren enpresa publikoak, Altsasun babes ofizialeko 21 etxebizitza, garajea eta trastelekuak eraikitzeko lanak eman ditu. Qoda Construcciones SM enpresa arduratuko da lanak egiteaz. Obraren truke enpresak 4.331.800 euro (BEZ barne) jasoko ditu. Lanak Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (Next Generation EU) funtsen kontura finantzatu da. 21 etxebizitzetatik bederatzi bi logelakoak (80 m²) izanen dira, beste bederatzi hiru logelakoak (90 m²), bi gela bakarrek (60 m²) eta bat irisgarria. Horiek guztiak lurrazpiko garajea, beheko solairua eta hiru altuera izanen dituen eraikin batean egonen dira. Beheko solairuan udalak 596 m²-ko lokala izanen du.

Eraikuntza lanak aurrera egiteko Altsasuko Udalak eta Nasuvinsa enpresa publikoak hitzarmena sinatu zuten. Horren arabera, Nasuvinsak partzelaren beste aldean beste 21 etxebizitza egiteko aukera luke bost urteko epean.

Alokairu errolda
Jasoko den eraikineko etxebizitza guztiak alokatzeko izanen



Galtzada kaleko orube horretan jasoko dute 21 etxebizitza izanen dituen eraikina.

dira, bereziki 35 urtetik beherako gazteei zuzendutakoak, bai eta desgaitasuna edo bestelako gizarte premiak dituzten pertsonen ere. Beti ere, lehentasuna izango dute Altsasun erroldatutako pertsonen.

Eraikiko diren 21 etxebizitzetako bat alokairu erregimenean eskuratu nahi dutenek Nasuvinsaren eskatzaileen erroldan izena eman beharko dute. Izen-ematea telematikoki egin daiteke nasuvinsa.es webgunearen bidez. Enpresa publikoak Iruñeko San Jorge etorbideko

8. zenbakian duen egoitzan ere eman daiteke izena, baina, horretarako, aldez aurretik hitzordua eskatu behar da aipatu webgunean.

Behin eskatzaileen erroldan izena eman ondoren, eskatzaileak bere lehentasunak aldatu edo datuak egunera ditzake, modu errazean eta berririo izenik eman beharrik gabe, telematikoki (nortasun agiri elektronikorekin) vivienda.navarra.es webgunean sartuta, edo aurrez aurre sozietate publikoaren bulegoetan aldez aurretik hitzordua hartuta.



Atzera ere, arrastoak margotuta

Unanuko Kontzejuak hirugarrenez arrasto horiak margotu ditu herriko hainbat kaletako zoruak, ibilgailuak non ezin diren aparkatu jakinarazteko. Izan ere, Beriain mendiak erakarrira, jende asko joaten da Unanura eta edozein tokitan aparkatuta uzten dituzte ibilgailuak eta trabak sortzen dizkiete unanuarrei joan-etorrietan edo larrialdi zerbitzuei.



Udaltzaingoak auto berria du

Altsasuko Udalak Udaltzaingorako SUV motako ibilgailua erosi dio Sakimovil SM enpresari. Haren truke 32.270,49 euro (BEZ barne) ordaindu ditu. Ibilgailu berriak udaltzainek 2006az geroztik erabiltzen zutena ordezkatu du. Orain arte udaltzainek erabili izan duten ibilgailua obren lantaldearena izatera pasa da.



amayaokindegia.eus

@panesamayaogiak

FESTAK

Txistorrari eta ziza eta landareei gorazarrea

Arbizun XIV. Txistor Eguna ospatu zen, eta Etxarri Aranatzeko ziza eta landare erakusketa

Jende asko bildu zen Arbizuko Txistor Egunean. 120 kilo txistor prestatu ziren, 1.500 txistor pintxo, bertaratutakoen gozamenetarako. Bitartean, Sakana Kantuzekoen doinuek eta Nafarroako hainbat tokitatik etorritako 65 trikitilari eta pandero joleek festa alaitu zuten. Sei pintxok parte hartu zuten pintxo txapelketan, eta epai mahaiak (Alhambrako Javier Diaz, Herriko tabernako Juanxo Saenz Izar Ondoko Nerea Caballe eta Aroa Petriati) Juanito tabernako Bonbona pintxo saritu zuen. Postuetan denetatik erosteko aukera izan zen, eta giroa, ederra.

Bestalde, urtero lez, Etxarri Aranatzeko ziza eta landare erakusketak bisitari ugari izan zituen.



ARBIZU Azokan denetarik erosteko aukera izan zen.



ARBIZU Juanito tabernako Bonbona pintxo izan zen saritua.



ARBIZU Guztira 1.500 txistor pintxo banatu zituzten XIV. Txistor Egunean.



ETXARRI ARANATZ Ziza erakusketak urtero ikusmin handia sortzen du.

Aldarrikapena eta festa mendi federazioek eta euskal mendi klubek antolatutako Euskal Herriko Erdigunera Ibilaldian

Erdiguneko nazio ekitaldiaren ondoren, Irañetako bordan 90 pertsona bildu ziren bazkaltzera

Ongi pasa ferietan!

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

PORTUKO

Igandean bi adar abiatu ziren Andimendirantz, Beriaingo baselizatik gertu, Olibesario sarioian dagoen Euskal Herriko Erdigunerantz (1.236 m). Bata Irañetako bordatik atera zen, eta Senosiaindik bestea. Erdiguneko topo egin zutenean hasi zen euskal mendi klubek eta bi mendi federazioek antolatutako ekitaldia. "Euskal Herriko Erdigunera Ibilaldia oso ongi atera zen. Nahiz eta lainoa egon, jende asko animatu zen ekimenean parte hartzera, pozik gaude" azaldu du Iratxo elkarte-ko Mikel Golderazena.

Ekitaldian Xabi Isasak (Euskal Herriko Erdigunea kalkulatu zuen Felix Isasaren semea), Atharratze mendi taldeko Rober Larrazburuk, Gure Eskuko June Romatetek, Gu ere bai!-ko Patxi Gaztelumendik eta Miren Eizmendik, bi mendi federazioen izenean, hartu zuten hitza, nazio



Erdiguneko ekitaldia jendetsua izan zela nabarmendu du antolakuntzak. UTZITAKOA

bat garela aldarrikatu, eta bi mendi federazioek elkarlanean lan egiteko sortutako Euskal Herriko Mendi Biltzarra eta Euskal selekzioak babestera deitze-ko. Palestina eta Libano jasaten ari diren genozidioa salatu zen.

Irañetako Bordan pintxo potea izan zen. Bordan bertan 90 pertsona bildu ziren bazkaltzera. "Lakuntzako baba txikiak primeran zeuden; eta giroa ederra". Ehun Mendietako Mendizaleen Anaidiko diplomak banatu ziren.

ALTSASU
FERIAK

URRIAK 18 Ostirala
18:00-20:00 Haurrendako jolasak, Gure Etxean.
Altsasuko peñek antolatuta.
18:00 Remonte jaialdia, Burunda frontoian.
Oriamendik antolatuta.
19:00 Txokolate jana, Gure Etxean.
Altsasuko peñek antolatuta.
19:30 Sakanako XI. Arte Azokaren mustutzea, lortia kultur gunean.
Artebidek antolatuta.

URRIAK 19 Larunbata
10:30 XIV. Onddo Lasterketa: Oinezko ibilaldia, Foru plazatik.
Dantzaleku Sakana Klubak antolatuta.
11:00 XIV. Onddo Lasterketa, Foru plazatik.
Dantzaleku Sakana Klubak antolatuta.
11:30-13:30 Erraldoi eta buruhandiekin kalejira, Altsasuko eta Etxarri Aranazko txistulariekin, Intxostiapuntatik.
12:00 Altsasuko Ferietako Ikastetxeen arteko XLIII. Krosa, Foru plazatik.
Dantzaleku Sakana Klubak antolatuta.
12:30 Altsasuko Musika eta Dantza Eskolakoein kalejira.
14:30 Peñen bazkaria, Zelandi frontoian.
Altsasuko peñek antolatuta.
16:30 Peñen kafea eta Maillot

ALTSASU "Zero kilometroko" liburuak Altsasuko ferietan

Hirugarren urtez Nafarroako Editoreen Azoka izanen da Altsasuko ferietan, igandean, goizean zehar, Foru plazan

2003. urtean Editargi elkarte martxan jarri zuten Txori Errekan, Igela, Mintzoa, Txalaparta eta Pamiela nafar argitaletxeek. Duela zortzi urte Nafarroako Editoreen Azoka antolatzea erabaki zuten. "Azkenean, liburudendetan ezin dute gure katalogo osoa izan, aukera hori gutxi gorabehera azokak ematen digu", azaldu zuen Aritz Otazu Lujanbio Editargiko presidentea. Urriaren 23tik 27ra Iruñean azokari amaiera emanen diote, baina aurretik, urriaren 20an, Altsasuko ferietan izanen da. Hiruga-



ALTSASU FERIA egunean, igandean, zaldien lehiaketa egonen da goiz guztian zehar.

banaketa, Zelandi frontoian.
Altsasuko peñek antolatuta.
17:30 Elkartepoteo eta kalejira.
Altsasuko peñek antolatuta.
19:30-22:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia, Foru plazan.
20:00 Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazatik Foru plazara.
Altsasuko peñek antolatuta.
22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.
23:30-02:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia, Foru plazan.
00:00 Peñen igoera, Foru plazatik Zumalakarregi plazara.
Altsasuko peñek antolatuta.

URRIAK 20 Igandea
09:00-14:30 FERIA.
Zaldi lehiaketako zaldien erakusketa, Zelai kalean.
Ardi latxen erakusketa, Ferialeku kalean.
Behi erakusketa, Ferialeku kalean.
Nekazaritzako elikagaien azoka: pateak, eztiak, babarrunak, ogia, pastelak, gazta, kontserbak, txistorra, taloak, txokolaketak, hestebeteak eta abar, Gartzia Ximenez kalean.
Artisau azoka: bitxiak, poltsak, arropa, zurezko jostailuak, xaboi naturalak, saskigintza eta abar, Foru plazan.
Erreminten eta makinaren erakusketa, Otadiko Santokristo inguruan.
Azoka txikia: arropak, oinetakoak eta abar, Baratzekobide plazan.

Mikologia erakusketa, Altsasuko Mikologia Elkarrekin antolatuta, Garbitokian.

XXXVIII. Argazki Rallya: Maketa eta aurreko rallyetako argazkien erakusketa, Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatuta, Gure Etxean.
Nafarroako VIII. Edizioaren azoka; besteak beste, Jose Luis Erdoziak *Burunda. Historia eta toponimia* liburua aurkeztuko du, Foru plazan.
10:30-14:00 Sakanako XI. Arte Azoka, lortia kultur gunean.
Artebide taldeak antolatuta.
11:30-13:00 Altsasuko zaldi lehiaketaren desfilea eta sari banaketa, Zelai kalean.
12:30 Altsasuko Txistulariekin kalejira.
18:00-19:30 Gorriti eta bere animaliak, Foru plazan (euriarekin, lortia estalpean).
20:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.



ren urtez izanen da editoreen azoka Altsasun.
Nafarroako VIII. Editoreen Azokaren lehenengo helburuetako bat bertako argitaletxeak ezagutzera ematea da. Altsasun hamar bat argitaletxe izanen dira, Foru plazan, goizean zehar. "Jendeak erosten du eskuraga-

rri duena, ezagutzen duena; geure burua ezagutzera emateko azoka tresna hoberena zen". Ferietan "taloak eta bestelako bertako produktuak dauden bezala" liburuak ere kalean daude. Altsasun ez ezik, eta Iruñean amaiera eman aurretik, Editoreen azoka Nafarroako sei herrietan egon da aurretik: Zangotza eta Korella apirilean, Viana eta Leitza maiatzan, Elizondon abuztuan eta Lizarra eta Tafallan irailean.

Editargiko argitaletxeek "zero kilometroko" liburuak egiten dituzte: "Euskal Herrian maketatzen dugu, salbuespenen bat egon daiteke, baina orokorrean hemen maketatzen dugu, hemen diseinatzen dugu, inprimatu... Dena hemen egiten da". Besteak beste, Jose Luis Erdoziak *Burunda, Historia eta toponimia* liburua salgai izanen du.

Altsasuko FERIA 2024

URRIAK 20 IGANDEA

ANTOLAKUNTZA

ARGAZKILARIA
JAVIER CARLOS POMBAR, Rally 2023

BADESLETTA

Albeniz LACUNZA50 Unamuno

Disinfecta: EN

Izan giltzarri!



Jon Erdozia eta Aritz Oiarbide Aizkolariak

**Jon Erdozia eta Aritz Oiarbide gara
eta Guaixeko bazkide izatera
gonbidatzen zaituztegu.
Izan giltzarri!**



**guaixe.eus/
kideak**

HARA ZER DIEN

Argentina

ASUN BERASATEGI GARTZIANDIA
BIOLOGOA

Norbaitek *panpa* aipatzen badu berehala agertuko da beste norbait argentinarren doinua imitatzen saiatuko dena; berehala erlasionatuko dugu Argentinarekin. Panpak latinoamerikako eremu zabal bat estaltzen du, Argentinako eskualde batzuk eta Uruguay hartuz Brasilgo hegoaldera iristen dena. Bestalde, Argentinako eskualde zehatz bati ematen dio izena ere.

Panpa hitza kitxua hizkuntzatik omen dator eta lautada adierazten du. Izan ere, bertako paisaia lautada zabalak eta muinoak osatzen dute gehienbat. Horretaz gain, klima, epela eta nahiko euritsua denez, nekazaritza eta abeltzaintzarako oso eremu egokia da.

Panpan du jatorria gure inguruan ikus daitekeen landare batek, panpa belarra, panpa lezka edo panpa mustuka izena duen landarea hain zuzen ere. Landare honen izen zientifikoa (latinezkoa) *Cortaderia selloana* da. *Cortaderia*, hosto ertzak

ebakiorrak direlako, eta *selloana*, Sellow naturalistaren omenez.

Landare belarkara bada ere (ez du zurezko zurtoin eta enborrik garatzen) tamaina handikoa da. Hosto multzo sendo eta zabalak garatzen ditu, 1-1,2 m altuera eta 1-2 m zabalera izan dezaketelarik. Hosto multzo hortatik luma itxurako motots eder batzuk sortzen dira, zuri, urre kolore eta arroxak arteko koloredunak. Ageri denez, landare dotorea da.

Bere edertasuna eta dotorezia dela eta lorezaintza merkaturako ekoizpena XIX. mendean hasi zen zegoeneko, harrezkeroztik mundo osora zabaldu zelarik lorategi ederki zainduak apainduz. Haatik, lorategietatik ihes egin eta landa eremura iristea lortu zuen, hazien bidez seguraski, eta zabalduz joan zen pixkanaka-pixkanaka, klima baldintzak egokiak izan zitzaizkionean (Ipar Amerika, Europa, Australia edo Hego Afrikan, esaterako).

Landareak ez direla mugitzen esan ohi da, horrek ahulagoak egingo balitu bezala, baina, zaratarik atera gabe eta behar duten denbora hartuz, zabaltzeko gaitasun ikaragarria dute. Panpa lezkaren motots bakar batek 10.000 hazi ekoiztu ahal ditu, beraz, landare eme batek milioi bat hazi ekoiztu ahal ditu batazbeste. Hazi bakoitza 33 km-ra ere iritsi daiteke. Hazi batzuk izanen dute arrakasta eta beste batzuk ez, baina arrakasta dutenen portzentaia txikia bada ere... atera kalkulagailua...

Euskal Herrian panpa lezka era kezkarriren zabaldu da dagoeneko kostaldean. Hasiera batean eraldatutako eremuetan zabaldu zen (errepide baztarrak, obrak egin berri ziren eremuak...), baina gero eta arruntagoa da habitat naturaletan: hezegune, duna, larre eta sastrakadietan. Barrualdean oraindik urria da, baina identifikatu dira dagoeneko hainbat toki non modu oso nabarian zabaltzen ari den (Sakanan ere!).

Panpa belarra bertako landarea da Panpan, autoktonoa. Berez sortzen da Lurraren zonalde hartan. Panpatik kanpo, Europan, Hego Afrikan..., ez da bertakoa, espezie exotikoa baizik (aloktonoa, kanpokoa).

Gainera, Lurraren zonalde askotan inbaditzailea bihurtu da, hau da, landatu den tokitik landa eremura zabaldu da, ekosistema edo habitat naturaletan inpaktu negatiboa sortuz. Hainbat tokitan landare exotiko inbaditzaile arriskutsuenen zerrendan dago.

Panpa belarraren adibideak laguntzen du "espezie exotiko inbaditzailearen" definizioa ulertzen: *espezie exotiko inbaditzaileak modu artifizialean, halabeharrez edo nahita sartutako espezie exotikoak dira, denbora jakin baten ondoren ingurunera egokitu eta hura kolonizatzea lortu dutenak, inpaktu negatiboak sortuz.*



Panpa belarraren modura, beste landare exotiko inbaditzaile batzuk arazo larria bihurtu dira dagoeneko eta sortzen duten inpaktua handituz doa. Horren aurrean hainbat neurri hartu dira. Adibidez, pixkanaka, araudia sortuz doa. Estatu mailan 630/2013 Errege Dekretua eta 42/2007 Legea aipatu behar dira, eta izan dituzten eguneratzeak ere. 630/2013 Errege Dekretuan ageri da panpa belarra landarea espezie inbaditzaile arriskutsuenen artean. Europa mailan 1143/2014 Erregelamendua aipatu behar da, espezie exotiko inbaditzaileak sartzea eta hedatzea prebenitzeari eta kudeatzeari buruzkoa.


Panpa belarrarekin batera badaude Euskal Herrian kezkarriak diren beste espezie batzuk: sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*),

ailantoa (*Ailanthus altissima*), budleia (*Buddleja davidii*), Bacharis halimifolia. Haien aurkako neurriak hartzea lehentasunezkoa da.

Gobernuek, udalek, fundazioek, gizarte taldeek... badute zeregina landare exotiko inbaditzaileen kontrolean eta baita prebentzio lanetan ere. Guk ere lagundu dezakegu: ez dezagun panpa belarra erosi, ez dezagun gure lorategietan landatu, moztu mototsak erabat garatu gabe daudenean eta errefusara bota eta, ahal bada, ezabatu landarea...

Gehiago jakiteko: Herrera-Gallastegui, M. eta Campos Prieto, J.A. 2006. *Panpa lezka (Cortaderia selloana)* Bizkaian. Kontrolerako Gidaliburua. Euskal Herriko Unibertsitatea eta Bizkaia Foru Aldundia.

DUELA 25 URTE...



Orritzek hamar urte

Hamar urte betetzen zituela eta Orritz dantza taldeak lastailaren 18tik 24ra egitaraua prestatu zuen. Alde batetik, argazki eta oroi-garrien erakusketa egin zuten. Kultur etxeko erakusketan bideo bat ikusteko aukera izan zen. Urteurrenerako aldizkaria ere argitaratu zuen Orritzek. Larunbatekoa izan zen egun handia: dantza emanaldia izan zen frontoian. Garai bateko eta orduko dantzariak izan ziren oholtzan. Eguna afariarekin eta Mundiñano Anaiak taldearen gaupasarekin despeditu zen.

"Aurten rock and rolla dugu", hala dio misterrak

ARETO FUTBOLA Osasuna Magnak ezin hobe ekin dio ligari, 2024/2025 denboraldiko lehen mailako lehen liderra baita, Cordobaren aurrean erraz gailendu eta gero. Peñiscolaren kontra bide beretik jarraitu nahi dute irurtzundarrek

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN
2024/2025 lehen mailako areto futbol liga modu ezin hobean hasi du Miguel Hernandezek zuzentzen duen Osasuna Xota Magnak. Talde nafarrak aurre denboraldian partidarik galdu ez zuen Cordoba Patrimonio de la Humanidad taldea hartu zuen Anaitasunan, eta hain zuzen ere Cordoba izan zen markagailuan aurreratu zena, 3. minutuan. Baina berehala partidari buelta ematea lortu zuen Xotak, eta, azkenean, 7-2 gailendu zen, Cordobari inolako aukerarik emanda. Dani Saldise (3), Murilo, ate propioan, Juninho, Pachu eta Ion Cerviño izan ziren golegileak.



Ion Cerviño, Asier Llamas eta Dani Saldise irurtzundarrak goletako bat ospatzen. XOTA

Jokalari guztiekin 'liluratuta'

Miguel Hernandez entrenatzailea pozarren dago Xotaren garaipenarekin eta batez ere taldeak izandako jarrerarekin. Kontrako gola jaso eta eta gero, taldeak izan zuen portaera nabarmendu du. "Sufritzen jakin dugu, gure buruan konfiantza izaten. Eta partidari buelta eman diogu". Jokalari guztien lana nabarmendu zuen. "Aurten rock and rolla dugu... jokalaria guztiekin liluratuta nago". Halaber, zaleen bultzada eskertu du. "Lehen jardunaldia izan da, eta sarrera ona izan dugu. Harmailak beti bultzatzen du, eta babes hori nabaritzen dugu. Jarraitu dezatela etortzen eta gurekin gozatzen eta sufritzen. Talde honek dena emango du, eta oso babestuta sentituko da etxean. Anaitasunara geroz eta jende gehiago jaisten bada, partidak irabazteko aukera gehiago izango ditugu". Denboraldia ligako lehen lider izaten hasi du Xotak. Datorren jardunaldian talde irurtzundarrak Peñiscola izango du aurkari. Partida igandean jokatu da, 12:30ean, Valentzian, eta bide beretik segi nahi dute berdeek.

Joanes Bakaikoa, kaiolan lehiatzeko desiotan

PILOTA Lau eta Erdiko B Serieko Txapelketako final laurdenetako ligaxkan, Eskiroz izango du lehen arerio

Joanes Bakaikoa Lau eta Erdiko B Serieko Txapelketa hastear dago. Etxarriarra final laurdenetako ligaxkan sartuko da lehian, eta bere lehen arerioa Eskiroz izango da. Partida igandean jokatu dute, 17:15ean, Labriten.

Joanes Bakaikoak joan zen urtean ezin izan zuen Lau eta Erdiko B Seriean parte hartu, lesionatu zelako. Hain zuzen ere, Eskirozek bete zuen bere tokia. Beraz, aurten bere txapelketa kuttunean bueltan da, gogotsu.

Etxarriarra espezialista da kaiolan, eta promesen mailako bi txapela ditu, 2018koa eta 2021ekoa.

Ezkurdia, jota

Ezustekoa emanda, Ezkurdia ez da Lau eta Erdiko Txapelketako final laurdenetako ligaxkara sailkatu, Lekunberriko final zortzirenetan Artolaren kontra 11-22 galdu eta gero. Kolpe gogorra izan da arbizuarrarendako, Lau eta Erdiko hiru txapela izaki, espezialista handia delako. Altzatzea, ez dago besterik.



Erremontistak kantxara bidean. ORIAMENDI

Erremontea eta atletismoa, Altsasuko ferietako apustua

Esku pilotaren ordeaz, aurten erremontearen aldeko apustua egin dute ferietan. 'Erremontari herriz herri' ekimenaren barruan lau partida jokatu dira guztira ostiral arratsaldean, doan. Gurrutxaga, Martirena, Goikoe-txea V, Apezetxea, Aldabe, Juanenea, Jabalera eta Azpiroz erremontistak ariko dire lanean. Bestalde, larunbatean XV. Onddo Lasterketa jokatu da.

Askotariko Sakana

Mank-ek antolatutako Askotariko Sakana, Aniztasuna erein jardunaldietan 'LGTBIfobia kirolean errealitate bat da' dokumentala ikusi, eta mahai ingurunean parte hartu zuen Etxarri Aranazko kultur etxean bildutakoek. Olaia Eizagirre palista eta entrenatzaileak, Iñaki Rubio kazetariak eta Bea Sever Naizen elkarteak kideak bildutakoak zalantzak argitu zituzten.



EMAKUME PREFERENTEA

4. JARDUNALDIKO EMAITZA
Universidad de Navarra - Altsasu 2-6

SAILKAPENA
EMAKUMEEN PREFERENTEA . 1. FASEA

1 Altsasu 12
2 Gazte Berriak 6

HURRENGOA
URRIAK 19, LARUNBATA
12:30 Altsasu - Gares (Dantzaleku)

Altsasu liderrak Gares hartuko du
Asedenaldiaren ondoren, Altsasuk zazpigarren den Gares hartuko du .

GIZON ERREGIONALA

5. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Beti Onak B - Altsasu 3-6
Amaya - Etxarri Aranatz 2-2
Lagun Artea - Univ. de Navarra B 3-0

SAILKAPENA
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 San Jorge 15
2 Altsasu 15
4 Etxarri Aranatz 11
7 Lagun Artea 8

HURRENGO JARDUNALDIA
URRIAK 19, LARUNBATA
15:30 Altsasu - Lagunak B (Dantzaleku)
URRIAK 20, IGANDEA
Etxarri A. - San Jorge (San Donato)
16:30 Arga Ibaia - Lagun A. (Sanduzelai)

Altsasu, indartsu

Altsasuk orain arteko bost partidak nagusitasun handiz irabazi ditu. Lagunak B-ren kontra bide beretik segi nahi du.

Etxarrik liderra hartuko du

Etxarrik San Jorge liderra hartuko du San Donaton. Etxarriarrek, irabaziz gero, fabore ederra egingo liokete Altsasuri.

Lagun Artea, ongi

Garaipenaren bidera itzuli da Lakuntzako taldea. Igandean hamabigarren den Arga Ibairen kontra bide onean segi nahi dute.

ARETO FUTBOLA Aralar Mendi, Arbizu, Altsasu eta Xota, oso ongi

Hirugarren mailan Aralar Mendik atsedena zuen eta bihar Kirol Sport du arerio, 12:30ean, Orkoien. Lehen Autonomikoan Arbizuk 13-3 irabazi zion Mendialdeari, eta Mutilberaren kontra 1-8 gailendu zen Altsasu. Gaur, ostirala, 19:30ean, Arbizuk Olite hartuko du, eta Altsasuk Mendialdea. Emakumeen lehen senior mailan Xotak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen Cortesi 0-1 irabazita. Bihar, 13:00etan, Tafa taldea hartuko du, Atakondoan.



Eguedrian klasikoen ibilbidea egin zuten, Iturmendi, Etxarri Aranatz, Lizarragabengoa eta Bakaiku artean.

Urrea balio duten katxarroak

MOTORRA Bakaikun antolatutako VII. Katxarro Eguna klasikoen topaketa arrakastatsua izan zen beste behin. 200 auto, kamioi, moto, bizikleta eta denetariko katxarro baino gehiago jarri ziren ikusgai, bildu zen jendetzarendako gozagarri

M.B.G. BAKAIKU

Bakaikuko Bakarrekotxea El-karteak Katxarros de madera eta bestelako babesleekin antolatutako VII. Katxarro Eguna arrakastatsua izan zen oso. Ia 300 partaidek eman zuten izena klasikoen topaketa ezagunean, eta denetariko auto, bizikleta, moto eta kamioi jarri ziren ikusgai Bakaikuko plazan eta inguruko kaleetan zehar. Antolakuntzatik aipatu zutenez, 273 auto, 35 moto, 5 kamioi, 2 traktore eta zenbait bizikleta. Horretaz gain, elkarte atean musika tresna zaharrak jarri ziren ikusgai. Haiek guztiak ikusi eta goiz ederra pasatzera jendea andana hurbildu zen Bakaikura.

Ohi bezala, auto zaharrenak edo klasikoenak piztu zuten arreta gehien. Benetako harribitxiak zeuden, oso ongi zaindutakoak. Eta haiekin batera BMW, Volkswagen Golf eta Mercedes Benz asko. Izan ere, auto batek klasi-koaren izendapena izateko 25 urte izan behar ditu, eta, horre-

gatik BMW, Golf, Peugeot 2025, Opel Kadett, Renault 5 eta hala-ko auto asko zeuden, zaharrago-koekin batera: Seat 600, Seat 124, Renault 4, Mini, Eskarabajoa, Citroen DS *Tiburon*, Alpinea...

Giro ederra

Jendeak gertutik ikusi zituen Bakaikun bildutako katxarroak, eta haien jabeekin hitz egiteko aukera izan zuten; ibilgailuen mantenuaren edo berezitasunei buruzko galdera asko erantzun behar izan zituzten. Hamaiketa-koa hartzeko aukera ere izan zuten.

Sariak eta zozketak

Antolakuntzaren sari banaketari dagokionez, katxarro polite-

naren saria Gaizka Razkin la-kuntzarrak jaso zuen, Ebro traktoreari esker. Katxarro zaharrenaren saria Iruñera joan zen; 1910 urteko bizikleta batek jaso zuen. Urrutitik ekarritako katxarroaren saria, aldiz, Burgo-sera joan zen.

Aurten antolakuntzak bi motor zozketatu zituen. Ohi bezala, berehala bukatu ziren salgai jarri ziren txartelak. Montesa Cliperra Iturmendira joan zen, eta Suzuki Maxia Iruñera.

Ibilaldi zalapartatsua

Bukaera aldera, topaketan parte hartu zuten katxarroek ibilaldi koloretsua egin zuten Iturmendi, Etxarri Aranatz, Lizarragabengoa eta Bakaiku artean. Askok bozina bereziak zituzten, eta soinu deigarrien artean egin zuten buelta.

Azkenik, Bakarrekotxea el-kartean bazkaltzera bildu ziren Katxarro Eguneke partaide asko, eta klasikoen festa ederra modu ezin hobean despeditu zuten.



Bakaikuko plaza eta inguruko kaleak mota guztietako katxarroz bildu ziren.



Auto zaharrenak izaten dira miresmen handiena jasotzen dutenak.



Antolakuntzak Suzuki Maxia zozketatu zuen eta familia honi egokitu zitzaion.



Citroen DS 'Tiburon' honek ikusmen handia piztu zuen.

**ANTOLAKUNTZA OSO
POZIK DAGO
KATXARRO EGUNAK
ERANTZUN HANDIA
IZAN ZUELAKO**

Maidet Betelu Ganboa ZIORDIA

2008an debutatu zuen txirrindularitza Gorka Izagirre Insaustik (1987-10-07, Ormaiztegui), Suitzako NGC Medical-OTC Industria Porte taldean. 16 urte berandua, agur esango dio bere ibilbide oparoari. Egunotan azken pedalkadak ematen ari da Txinako Guangxiko Tourrean, Cofidiseko taldekideekin. Handik bueltan, beste bizitza bat hasiko da Zior-diko bizilagunarendako.

Urriaren 6an jokaturako Paris-Tourren txirrindularitza utziko zenuela esan izana askatzailea izan da zuretako?

Ez dakit ba. Txirrindularitza uzteko erabakia aspaldi hartu nuen, martxoan inguruan. Nolanahi ere, nahiz eta erabakia hartu, beti horren kontra borrokatzen duzu, nolabait; batetik, jada uzteko garaia heldu dela esaten diozu buruari, baina bestetik, jarraitzeko zera hori dago... Hala egon izan naiz, borroka horretan, baina nire buruak "nahiko da" esan du, eta orain lasai nago: egindakoarekin pozik nago, eta txirrindularitza uzteko gogoz.

Emandako mailarekin gustura azaldu zara orain arte, baina azken denboraldi hau ezberdina izan da. Ez zaitugu zure onenean ikusi, eta tarteka deseroso sumatu zaizu.

Agian bai. Niretako ez da urte erraza izan. Eta hori izan da txirrindularitza uzteko erabakiaren arrazoietakoa bat. Orain arte ibili naizen bezala ez sentitzea, eta ez disfrutatzea; horrek txirrindularitza uztera bultzatu nau.

37 urte dituzu, horrek ere eragina izan du txirrindularitza uzteko erabakian?

Ez, adinarengatik ez da izan; buruak nahiko dela esan dit. Arrazoi ezberdinengatik entrenatzea, zaintzea eta profesional mailan gauzak egin behar diren bezala egitea kostatzen zaizunean... azkenean ez duzu maila ona ere ematen. Horrela gertatzen denean, nahikoa esanda dago. Talde aldaketarekin ez dut motibazio handiegirik aurkitu, eta aldaketara ez naiz egokitu. Asko kostatu zait, eta halaxe ibili naiz aurtun. Azkenean, uzteko erabakia hartu nuen, besterik gabe.

Hamar Tourretan parte hartu duzu, hiru Giroan, bost Vuelatan, hiru mundialetan – 2019koan bederatzigarren izan zinen– eta Tokioko Olinpiar Jokoetan. Txirrindulari batek parte har dezakeen proba handi guztietan aritu zara, eta ildo horretatik, zikloa itxi duzu.

"Txikitako ametsa bete dut, eta orain gustura noa"

GORKA IZAGIRRE INSAUSTI TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Gorka Izagirre bere ibilbide profesionaleko azken pedalkadak ematen ari da Txinan. Hamasei urtetan ibilbide oparoa izan du, eta palmares polita utzi du



Gorka Izagirre aurtengo Itzulian, Etxarri Aranatzen.

Bai. Tokiokoa, dena den, ez dut biziki ongi gogoratzen, guk ez baikenituen olinpiada normalak bizi izan. Pandemia garaia zen. Tokiotik ia 400 km-tara geunden kontzentratuta, eta horrek eskatzen zigun oso goiz esnatu behar izatea, 5:30ak inguruan eta autobusez irteerara puntura joatea, urruti. Ez ziren lasterketa normal baten baldintzak, pandemiaren kontuarengatik. Beraz, ez dut olinpiadetan aritu izanaren halako oroitzapen ederrik, baina han izan nintzen.

Zure palmaresean hainbat garaipen dituzu. Tartean, Euskaltelekin Luxemburgoko Tourreko etapa bat eta Ordiziako bi klasiko irabazi zenituen; Movistarrekin Ordiziako beste klasiko bat, Amorebietako klasikoa eta Giroko etapa bat; Bahrainekin Espainiako Txapelketako errepideko proba eta erlojupeko bigarren postua; eta Astanarekin La Provenceko Tourra eta Trittico Lombardo. Garaipen faboritorik al duzu? Edo denek garrantzi berdina izan dute?

Kuttunena Ordiziako Klasikoa da, etxekoa delako. Ibilbidea ere niretako oso berezia da, umetatik han ibili izan naizelako; hantxe

"NIRE BURUAK 'NAHIKOA DA' ESAN DU. EGINDAKOAREKIN POZIK NAGO, ETA UZTEKO GOGOZ"

eman nituen nire aurreneko pedalkadak eta han egin nituen nire lehenengo entrenamenduak. Horregatik, lasterketa hori hiru aldiz irabaztea oso berezia izan da niretako. Etxean bertan, eta etxeko jendearen aurrean, horrek oso berezi egiten du Ordiziako klasikoa.

Duen sonari begira, Giroko etapa da garaipen potoloena, ezta?

Bai, nire garaipen sonatuena da. Tourrean garaipena lortzeko zorian izan zara zenbaitetan. Tourrean etaparen bat irabazi ez izanaren arantza geratu zaizu?

Ez. Tourrean zurtaina askotan jo dut, postu asko dauzkat Top 10ean, baina lehenengoa falta zait, eta halaxe geldituko da. Ez dut inongo arantzarik. Lasterketa egunean bigarren egiteagatik, edo hirugarren izateagatik, arantzatxo horiek izaten ziren, baina unean unekoak. Egun ez da loa kentzen didan inongo ezer.

Zure ibilbidean garai ezberdinak izan dituzu, talde ezberdinekin lotutakoak. Zuretako zein izan da zure gararik onena?

Ez nuke esango. Etapa horietan guztietan beti gauza oso politak lortu izan ditugu, agian maila pertsonalean baino, talde gisa lortutakoak. Eta ni horrekin geratzen naiz, momentu horietan eta garaipen horietan taldekide gisa parte hartu dudala. Momentuan bertan ez diozu horrenbeste garrantzirik ematen, baina atzera begiratzen hasita, lorpen horiek baloratzen dituzu; une oso ederrak pasa ditugu.

Euskaltelek 'Marea laranja' dokumentalean talde laranjaren historia bildu du. Talde laranjaren urrezko urteak bizi izan zenituen eta zu ere talde horren historia bazara.

Euskalteleko lau urteak oso ederrak izan ziren. Oso talde berezia zen, etxekoa. Lehenengo mailan talde bat genuen, txirrindulari egiten hasi nintzen tokia zen, eta esan bezala, etxekoa. Ez soilik txirrindulariak, baita plantilla guztia: masajistak, zuzendariak, mekanikariak... denak. Horrek guztia oso gertukoa egiten zuen. Momentu oso politak dira, gordeta ditudanak.

Zure bizilagun eta lagun Jorge Azanzak gidatzen duen egungo Euskaltel-Euskadi nola ikusten duzu?

Hor doaz, ondo. Nolako taldea den kontuan hartu behar da. Bigarren mailan daude, Pro Tour mailan, eta maila horretan ez da erraza izaten. Izan ere, txirin-

dularitza asko aldatu da. Nire garaiko Euskaltel-Euskadiren txirrindularitza eta gaur eguneko ez dira berdinak, sistema erabat aldatu da. Oraingo sistemak ez du lehen zegoenarekin zerikusirik. Gaur egun lehen maila, bigarrena eta hirugarrena daude, eta lehen ez zegoen halako ezer. Lehen profesionala zinen, edo ez zinen. Gaur egungo sailkapen horiek gauza asko baldintzatzen dituzte, tartean talde baten aurrekontua. Egun, diru asko sartu da txirrindularitzan, World Tour edo lehen mailan batez ere. Esango nuke sei-zazpi super talde daudela. Bigarren mailan bazau-de, nahikoa lan baduzu. Uste dut Euskaltelen lana ongi egiten ari direla, eta hor daudela, borrokan. Ez baduzu borrokatzen, ez duzu ezer lortzen, eta hala jarraitu behar dute, poliki-poliki.

Super taldeak aipatu dituzu. Movistarrekin txanponaren bi aldeak bizi izan zenituen. 2014tik 2017ra super taldeetako bat zinen, eta 2022tik 2023ra, aldiz, lehen mailari eusteko puntuengatik borrokatzea tokatu zitzaizuen.

Lehen tarte horretan lortu genuena ez genuen gehiegi baloratzen, egia esan. Garai hartan, lau urtez segidan, munduko talderik onena izan ginen Movistarrekin. Gero, hori faltan duzue, orduan jartzen duzu balore. Movistarre itzuli nintzen, justu kontrako egoera tokatu zitzaidan: sailkapenaren beste muturrean geunden, jaisteko borrokan. Beraz bi aldeak bizi izan nituen.

2022an Tourra utzi behar izan zenuen beste lasterketetan parte hartzeko, Movistarrendako puntuak lortzeko. Nahiz eta profesionala izan eta taldearen aginduetara egon, horrek mina emango zizun, ez? Tourra bukatzeko egun pare baten faltan utzi behar izatea...

Niri momentu horretan ez zidan min handirik eman. Ez. Taldeak ere ez zidan Tourra uztera behartu, baizik eta aukera eman zidan. Nik banekien taldea zein egotartean zegoen. Enric Masek Tourra utzi zuen. Bera zen gure lidera, sailkapenean uste dut zortzigarren zela. Gauzak ez zihoen guk nahi bezala, baina egoe-

"ATZERA BEGIRATZEN HASITA BALORATZEN DITUZU LORPENAK; UNE OSO EDERRAK PASA DITUGU"



2010ean irabazi zuen lehen aldiz Ordiziko Klasikoa. JOSETXO MARIN / DIARIO VASCO



2017an Giroko etapa irabazi zuenean. MOVISTAR



Gorka Izagirre Imanol Erbitiarekin, 2019ko Mundioletan, bederatzigarren sailkatu zenean.

ra horretan zortzigarren postu hori puntu mordoxxa ziren taldearendako. Hala ere, Mas bizikletatik jaitsi zen, eta talde barruan mugimendu handia egon zen. Tour osoa lider batendako lanean pasatu, eta bi egunen faltan esaten duenean, "jaitsi egingo naiz", ba ez da gustagarria. Ondorioz, talde estrategia aldatu egin zen, eta beste lasterketa batzuetara joateko prest egongo nintzen proposatu zidaten. Erronka onartu nuen. Ez nuen pena handiegirik hartu; pena

gehiago hartu nuen Masek Tourra horrela utzi zuelako. Taldekide guztiak hala uztea... hori askoz ere tristeagoa izan zen niretako.

Anaia, Imanol Izagirre, oso garrantzitsua izan da zure txirrindularitza ibilbidean. Batzuetan talde berean aritu zarete, gaur egun bezala eta beste batzuetan arerio izan zarete. Anaia ere txirrindulari izatea ona izan da zuretako, hala konfiantza handia dagoenean ez da horren ona?

Anaiarekin beti ongi. Konfiantza handi horrek beste gauza batzuk

Gorka Izagirre (2008-2024)

Taldeak

- **2008:** NGC Medical OTC Industria Porte
- **2009:** Contentpolis Ampo
- **2010-2013:** Euskaltel-Euskadi
- **2014-2017:** Movistar
- **2018:** Bahrain Merida
- **2019-2021:** Astana
- **2022-2023:** Movistar
- **2024:** Cofidis

Palmaresa

- Luxemburgoko Tourra (2010)
- Ordiziko Klasikoa (2010, 2012 eta 2014)
- Amorebietako Klasikoa (2017)
- Italiako Giroko etapa (2017)
- Espainiako Txapelketa. Erlojupekoan txapeldunordea (2018)
- La Provenceko Tourra (2019)
- Trittico Lombardo (2020)

sor ditzake, baina ez dira apartekoak izan. Anaiarekin beti egon izan gara elkarrekin, gustura.

Zure azken txirrindulari egunak Txinan emango dituzu, munduko beste puntan. Zein da helburua?

Guangxiko Tourra bukatzea, ez dut beste helbururik. Nahikoa helburua bada hori.

Zerbait egin ez izanaren damua duzu? Bere momentuan beste erabakiren bat hartu izana, edo talde batera joan beharrean beste batera joan izana... halakoren bat?

Bai, nire ibilbidean eduki izan ditut halakoak. Ez dakit ere unea den halakorik esateko, baina esango nuke momentu batzuetan bai izan dudala gehiago sakrifikatu ez izanaren damua. Sakrifizioaren aldetik beti izan naiz pertsona nahiko zuzena, entrenatu, gorputza zaindu eta kirolari izateak eskatzen dituen oinarriko gauza horietan, baina une batzuetan tuerkari buelta bat gehiago eman ez izanaren zera hori badut.

Zein da beti miretsi duzun txirrindularia?

Miretsi, haurra nintzenetik, Indurain miretsi dut. Baina niri asko markatu izan didana Alejandro Valverde izan da. Berarekin asko bizi izan dut, taldekide izan dut, eta niretako txapeldun izugarri bat da.

Imanol Erbiti zurekin ados egongo litzateke.

Jakina, zalantzarik gabe (kar-kar). Gaur egun, nor esango zenuke txirrindulari onena dela?

Denen ahotan Pogacar dago. Pogacarrek zer gauzak egiten dituen ikusten dugu, baina niri beste mota bateko txirrindulariak gus-tatzen zaizkit eta, beraz, ez dut Pogacar erantzungo. Korranteak jarraitzea ez dut gustuko, eta Van der Poel esango dut.

Aita ziklo-kros txapeldun handia izan zenuten, eta zuk ere ziklo-kro-sean aritzea gustuko duzu. Ziklo-kro-sean jarraituko duzu? Edo txirrindularitza guztiz utziko duzu?

Txirrindularitza utzi egiten dut, eta dena uzten dut, baita ziklo-kro-sa ere.

Ez dituzu bizikleta guztiak kenduko, ezta?

Ez ditut bizikleta asko, ez pentsa. Taldearenak dira, eta agian batere gabe geratuko naiz.

Kirolari profesional askok ez dakit hitz egokia nazkatuta den, agian hitz egokia da nekatuta bukatzen duzuela. Izan ere, kirolari profesionalen bizitza gogorra da. Puntu horretan zaude, akituta?

Bai, nekatuta. Nazkatuta... hitz hori ez zait asko gustatzen. Nekatuta. Eta buruz nekatuta, lehen esan dudana bezala. Orain gauzak oso lasai hartuko ditut.

Beraz, epe laburrean zure bizitza ez duzu txirrindularitzari lotuta ikusten?

Ez dut nire burua kirolari lotuta ikusten, inondik inora.

Urriaren 6an Paris-Toursen oroigarria eman zizuten txirrindularitza utzi behar duzulako. Omenaldia "berezia eta hunkigarria" izan zela esan zenuen. Hitz horiek erabiliko al zenituzke zure txirrindularitza ibilbidea definitzeko?

Ez. Berezia eta hunkigarria izan dela, ez. Esango nuke ume-umetatik izan dudana ametsa betetzea izan dela. Txirrindulari izateko ilusio hori, amets hori, bete dudala.

Eta "egindakoarekin, kontentu noa"? Hori gehitu genezake?

Bai, egindakoarekin oso gustura. **Seme-alabak txirrindulari izatea gustatuko litzazuke?**

Ez diot aparteko garrantzirik ematen. Osasuntsu izan daitezela, eta kirol bat gustatzen bazaie, egin dezatela. Hortik aurrera, tokatzen dena, edo ahal dutena. Zerbaitera edo nonbaitera iristea lortuko balute, poztuko nintzatekeela, ez dut inongo zalantzarik, baina nahi dutena egin dezatela. **Luxu bat izan da zu lanean ikustea. Zure ibilbidea ongi bukatu dezazula eta merezitako atsedena har dezazula. Zorte on ibilbide berrian. Eskerrik asko!**

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN.
Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 18

ALTSASU Informazio saioa.
CUMACA-M (Zaintza bularreko minbiziaz harago) NUParen proiektuaren informazio saioa: interbentzio digital pertsonalizatu bat ebaluatzea da helburua. Parte hartzeko irizpideak: 18 urtetik gorako emakumea, bularreko minbizia diagnostikatua, tratamenduaren amaiera duela bost urte baino gehiago, gaur egun gaixotasunik gabe egotea eta Internet smartphone erabiltzea. Kontakutua: proyecto.cumaca.upna@gmail.com edo 664 101 317 telefonoa.
10:00etan, osasun etxean.

ALTSASU Hitzaldia.
Altsasurako behi suhar proposamenaren inguruko hitzaldia. Hizlaria: Axier Albite Euskal Herriko zezenzale elkarteak kidea eta albaitaria, Euskal Herriko zezen festa herrikoiei buruz. Laguntzailea: Euskal Herriko zezenzale elkarteak.
18:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Aurkezpena.
Gazte Topagune Sozialistaren aurkezpena, GKSek eta Ikaile Abertzaleak-ek antolatuta.
Gaztetxean.
19:00 Aurkezpena.
20:00 Pizzapoteoa.
23:00 Kontzertua: Nikotina
(Sarrerak: 3 euro).

LARUNBATA 19

ALTSASU Bizikleta irteera.
Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Larregoiko, 51 kilometro.
08:30ean, Zumalakarregi plazan.

LAKUNTZA Mendi irteera.
Zabalarte egunaren irteera: Lakuntza – Irañeta. Bazkaria Irañetako bordan.
09:00etan, plazatik.

LAKUNTZA Kafe tertulia.
Hitz egin dezakegu menopausiaz kafe tertulia.
10:30ean, liburutegian.

ARBIZU Ikastaroa.
Pribatutasuna sarean ikastaroa, Sarean Euskaraz egitasmoaren barruan: Sare sozialak gero eta gehiago erabiltzen ditugu gure bizitzako alor guztietan: aisialdian, ikasketetan, lanean, harremanetan... Baina nolako arrastoa uzten dugu? Nork eskura dezake informazio hori? Nolako ondorioak izan ditzake? Eta etorkizunean? Galdera horiei erantzutera eta, batez ere, sare sozialak egoki erabiltzeko hainbat aholku aletzera bideratutako saioa.
11:00etatik 13:00etara, liburutegian.

IRURTZUN Batzarra.
Aurrekontu parte hartzaileak Irurtzunen: ziklo berri bat? Bilera.
12:00etan, kultur etxearen bigarren solairuko aretoan.

LAKUNTZA Eguna.
Gure Nahia elkartearen bazkidearen eguna: bazkaria, aipamenak eta kontzertua.
Egunean zehar, Gure Nahia elkarteak.

IRURTZUN Eguna.
Pikuxar elkartearen bazkide eguna.
Egunean zehar, Pikuxarren.

IGANDEA 20

ALTSASU Bizikleta irteera
Barranka Txirrindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: Lezera, 30 kilometro.
08:30ean, Zumalakarregi plazan.

IRURTZUN Antzerkia.
104. haurra Yarleku konpainiaren antzezlanaren emanaldia, Eva Azpilikueta aktore altsasuarrarekin eta Laura Villanueva aktorearekin; Jokin Oregik zuzenduta: Umezurztegi batean adoptatua izateko irrikan dagoen neskato bat da protagonista. Egoera berean dauden beste neska batzuek bezala, jantziak egiten eta josten ematen ditu egunak. Euskaraz.
Sarrerak: 3 euro.
18:00etan, kultur etxean.

ZINEMA

ALTSASU

ORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

La infiltrada

Igandea 20 19:30
Astelehena 21 19:00

Mi amigo el pingüino
Igandea 20 17:00

En la habitación de al lado
Osteguna 24 19:00

ORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Casa en llamas
Osteguna 24 19:45

ASTELEHENA 21

ALTSASU Elkarretaratzea.
Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Irakurketa kluba.
Gaztelaniako irakurketa kluba: *La familia Martin*, Daniel Foenkinosen liburua mintzagai.
18:00etan, lortia kultur gunearen erabilera anitzeko gela.

IRURTZUN Elkarretaratzea.
Genozidioa stop! Gernika Palestina herri ekimenak deitutako mobilizazioa.
19:00etan, San Martin kalearen 7 zenbakian.

ARBIZU Elkarretaratzea.
Genozidioa stop! Gernika Palestina herri ekimenak deitutako mobilizazioa.
19:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Elkarretaratzea.
Genozidioa stop! Gernika Palestina herri ekimenak deitutako mobilizazioa.
19:00etan, plazan.

BAKAIKU Elkarretaratzea.
Genozidioa stop! Gernika Palestina herri ekimenak deitutako mobilizazioa.
19:00etan, erdiko iturrian.

ALTSASU Elkarretaratzea.
Genozidioa stop! Gernika Palestina herri ekimenak deitutako mobilizazioa.
19:00etan, udaletxearen aurrean.



ALTSASU Artekleta. Bizikletari bide: jasangarritasuna, artea eta Sakana. Sakanako artistek bizikletekin egindako artelanen erakusketa.
Altsasu BHLn.



IRURTZUN Erakusketa kolektiboa: Doris Vicente, Agus Lizarraga eta Luisa Aldaburu margolarien lanen erakusketa. *Urriaren 31ra arte. Pikuxar tabernan.*



ALTSASU XIII. Arte Azoka, Artebide taldeak antolatuta. *Urriaren 18tik azaroaren 17ra. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 19:45era, larunbatetan eta igandetan 17:30etik 20:30era. lortia kultur gunearen erakusketa aretoan.*

ASTEARTEA 22

ALTSASU Tailerra.
Kafe konpondu. Etxetresna elektrikoak eta beste hainbat gauza konpontzeko tailerra.
17:30etik 19:30era, Gure Etxean.

ALTSASU Irakurketa kluba.
Gaztelaniako irakurketa kluba: *La familia Martin*, Daniel Foenkinosen liburua mintzagai.
18:00etan, lortia kultur gunearen erabilera anitzeko gela.

ASTEAZKENA 23

ALTSASU Irakurketa kluba.
Euskarazko irakurketa kluba: *Odolekoak*, Aintzane Mendizabalen liburua mintzagai.
18:00etan, lortia kultur gunearen erabilera anitzeko gela.

OLATZAGUTIA Ipuin kontalaria.
Ipuinen Kulunkan musika eta dantza nahasten dituen Haize Loira Matxiñeren ipuin kontaketa. Urte bat eta hiru urte bitarteko haurtxoendako bideratuta. Sarrera doan, edukiera bete arte.
18:00etan, liburutegian.

OSTEGUNA 24

SATRUSTEGI Topaketa.

Bertako barietateak topaketa: hazien garbiketa, sailkatzea eta gordetzea hauen kontserbaziorako.
18:00etan, elkartean. Izena ematea, urriaren 21 arte, 634 584 226 Whatsappean edo 948 500 101 telefonoan.

OSTIRALA 25

ALTSASU Tailerra.
Irakurkide txakurrekin irakurketa tailerra, Biak Baten eskutik. Aurretik izena eman behar da.
18:30ean, liburutegian.

IRURTZUN Kontzertua.
Iluntze akustikoak: Imanol, Andrea, Haizea eta Enara abeslariaren kontzertua, Iratxok antolatuta.
19:00etan, Iratxo elkarteak.

ALTSASU Antzerkia.
Emakume baten borroka eta metamorfosia antzezlanaren emanaldia: Edouard Lousen eleberraren egokitzapena, amari duintasuna publikoki itzultzeko beharrezko berrelkartze hunkigarria. Eneko Sagardoy aktore bizkaitarra da protagonista, Lucia Quintana y Vito Rogado aktoreekin batera; seme baten eta haren amaren arteko elkarriketa da antzezlanaren oinarria. Euskaraz. Sarrerak: 8 euro.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ESKELA



Karmentxu
Satrustegi Zubeldia

Pedro Antonio Otsagabiaren alarguna
(1933/07/05 - 2024/10/05)

Bizi guzia itxeko lurra lantzen eman ondorien, udazkenien juan za.
Zuk emantako uzta ez tuu sekula aztuko.
Eskerrik asko, ama.
Eskerrik asko momentu zail hauetan babesa eskaini diguzuen guztiei.

Seme-alabak
Arruazu



ESKELA



Karmentxu
Satrustegi
Zubeldia

(1933/07/05 - 2024/10/05)

Isilik daude harriak
isilik haizea
etxe eta kaleak,
isil-isilik daude gauzak berriro
udazkenean.
Zure bilobak
Arruazu

ESKELA



Mari Cruz
Barandiaran
Razkin

(Urriaren 12an hil zen 77 urterekin)

Eskerrik asko guki ondu zaien guzoi

Lonbren fameliya
Arbizu - Lazkao

ESKELA



Agustín
San Miguel
Gastaminza

Beti egongo zara gurekin

San Miguel Elkartea
Olazti

ESKELA



Goyi
Guisado Moreno

(2024ko urriaren 15ean hil zen)

Ahazten ez dena ez da sekula hilko

81eko kintoak
Altsasu



IRAGARKI SAILKATUAK

MEKANIKARI LANPOSTUA
Kamioi eta autobus tailerra mekanika, txapa eta margo ezagutzak dituen langile bila. Sakanan. Curriculumak: tallercamion10@gmail.com / 948 507 019

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Mank-en lan egiteko aisialdiko begirale eta kirol monitore lan poltsak osatu nahi dira: Bi deialditan parte hartzeko C1 euskara maila beharrezkoa izango da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

IKASTAROAK

Indar tailerra emakumeentzat: Azaroaren

Sean Ziordin eta azaroaren 29an Uharteko Arakilen. Informazio gehiago eta izen emateak kirolak@sakana-mank.eus edo 610 812 888 telefonoz.

Gimnasia terapeutikoa fibromialgia eta Neke Kronikoa dutenentzako: Osasuna hobetzeko jarduera fisiko espezifikoak egingo dira ikastaroak Altsasun, Etxarrin eta Irurtzun. Informazio gehiago eta izen emateak Sakanako Mankomunitatean (948 464 866) edo AFINAN (948 135 333) telefonoz. Emailak kirolak@sakana-mank.eus helbidera idatziz.

Lakuntzan ikasturteko ikastaro eskaintza heldu eta gazteentzat: Hainbat erakundek antolatzen dituzten ikastaro eta tailerretan izena emateko haiekin jarri behar da

harremanetan, edonola ere eskaintza guztien berri www.lakuntza.eus web orrian ikusi daiteke.

Pintura ikastaroa Olazti: Udalak antolatutako ikastaroaren inguruko informazioa eta inskripzioa www.olazti.com web orrian edo udaletxean

OPATUTAKOAK

Irailaren 13an Txurregin aurkitutako betaurrekoak: Txurregi mendian aurkitu nituen betaurreko graduatuak Irurtzungo udaletxean utzi ditut, galdu dituenak han aurkitu ditzake.

Etxarri Aranazko udaletxearen estalopean Wilson markako tenis raketa baten funda beltza opatuta: Irratian dago.

Etxarri Aranazten 6 giltza aurkitu dituzte: *Hotsein!* Giltzarapo batean, gomazko bi panpin txikirekin batera. Irratian daude.

OHARRAK

Lakuntzako entitateen-dako Udalaren dirulaguntza deialdia zabalik: Laguntzak eskuratzeko baldintzak dira jarduerak herritar guztiendako zabalik egotea, hezkuntza-aren edota gizarte, kirol eta kulturaren aldetik interesgarriak izatea, herritarren harremanak eta elkarbizitza, hautapen libre eta garapen pertsonala sustatzea eta udalaren beste laguntza lerro batean sarturik ez egotea. Deialdiaren oinarriak eta dokumentazioarekin batera aurkeztu beharreko eskabide ereduak www.lakuntza.eus webgunean dago.

Eskaerak urriaren 4ra arte aurkez daitezke.

Lakuntzan Euskara ikasteko dirulaguntzak: Lakuntzan eroldatutako 16 urtetik gorako pertsonei zuzendua. Deialdiak oinarriak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa udal bulegoetan daude eskura eta eskariak Lakuntzako Udalaren erregistroan aurkeztu behar dira urriaren 4a baino lehen. Informazio osoa www.lakuntza.eus web orrian eta udaletxean.

Arbizuko Utzubar Ekogunean konposta eskuragarri: Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak gogorarazi du, nahi duen guztiak urte guztian zehar konposta eskuragarri duela bertan. Informazio gehiago nahi duenak info.hondakinak@sakana-mank.eus e-posta

tara idatz dezala edo 900 730 450 telefonora hots egin dezala.

SOS GAZA. Gemika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa plataformarekin batera Elkartasun Aktiboa iniziatiba martxan jarri du: Netanyahu nazioarteko epaileen aurrean eramateko, Gazan elkartasuna proiektuak bultzatzeko Mundubat GKE-ren bitartez eta Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekarpene ekonomikoa egiteko, Nafarroan ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrontean dirua sar dezakezu, edo zure banketxearen aplikazioaren bitartez BIZUM EMN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu eta 08737 kodea erabiltza dirua eman.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

JAIoTZAK

- **Urtzi Jauregi Albarrazin**, urriaren 9an Olaztin.
- **Bidane Galarza Azpilikueta**, urriaren 8an Urdiainen.
- **Jurgi Iraurgi Nafarrate**, abuztuaren 3an Etxarri Aranatzin.
- **Itziar Sofia Alfaro Ortiz**, urriaren 5ean Etxarri Aranatzin.

HERIOTZAK

- **Irene Aramendía Goicoechea**, urriaren 14an Urdiainen.
- **Antonio Cano Ovejas**, urriaren 12an Irurtzun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

✉ @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



'Mamuki' liburuaren aurkezpena, Karrikirin, egileekin eta Etxepare Sariko ordezkariekin. SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Kalean da 'Mamuki' album ilustratua

Maite Rosendek eta Nerea Ariznabarretak sortutako liburua Etxepare Sariko 2024ko irabazlea izan zen; Pamiela argitaletxeak argitaratu du. Beldurraren inguruko umorezko kontakizuna egiten du album ilustratuak

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak Nafarroako beste 22 toki entitateetako euskara zerbitzuekin batera haurrendako album ilustratuak sortzeko Etxepare Saria antolatzen dute. Ekainaren 26an iragarri zuten Maite Rosenderen eta Nerea Ariznabarren *Mamuki* obra zela 2024ko irabazlea, eta orain Pamiela argitaletxeak argitaratu du. Liburuaren aurkezpenarekin batera 2025ko Etxepare Sariari hasiera eman diote.

Mamuki beldurrari buruzko album "umoretsua" da: "Gau Beltza da, eta mamuek sustoak eman behar dituzte, ingurumarian ikarra eragin beharra daukate. Baina mamu txikia gaixorik dago eta hainbat pertsonaia beldurgarri saiaturko dira hura osatzen eta sendatzen: banpiroa, zontia... Edo gertuago ditugun Zakuzahar edo Otsoko". Baina alferrik da, Mamuki ez da sendatzen. "Zer egingo du Mamukik Gau Beltza ospatu ezinik?". Txakur jolasti bat Mamuki sendatzen saiaturko da,

etxeko agertoki "minimalista" batean. Apaindura gutxiko etxean osagai bakoitzak "sinbolismo handia" erakusten du: "erlojuak eta ilargiak, batik bat".

Narrazioa paralelismoetan eta hitz jokoetan eraikia dago, erritmoa eta errima erabiltzen ditu eta hurrei oso gertukoa egiten zaiela jakinarazi dute Etxepare Sarietatik, "barrea eraginen du ustez beldurra nagusi den kontakizunean". Testua beldurrari buruzko gogoeta jostagarria bilakatuko dela gaineratu dute.

Erritmo eta errima horiexek ilustrazioen ezaugarriak dira, "benetan samurrak eta maitagarriak, dibertigarriak eta ganberroak". Horregatik, aurkezpenean azaldu dutenez, testuaren eta

IRAKURLEARENGAN
"IRRIBARREA ETA
KONPLIZITATEA"
PIZTEN DITU 'MAMUKI'
LIBURUAK

ilustrazioaren arteko uztarketa "aparta" da. Irakurlearengan "irribarrea eta konplizitatea" pizten dutela gaineratu dute, "eta orrialdeetan atzera egiteko gogoia, lehen begiratuan ikusi ez ditugun xehetasunak bilatzeko, ludikotasuna eta adiskidetasuna aldarrikatzeko".

Egileak

Maite Rosende Gutierrez da *Mamuki* liburuaren ilustratzailea. Bartzelonan pintura muraleko goi mailako gradu bat eta ilustrazioa ikasi zituen; ondoren, hainbat diziplina artistikotan trebatzen jarraitu zuen, baita diseinu grafikoa, argazkigintza eta bideo edizioan ere.

2024ko Etxepare Sariko lan irabazlearen idazlea Nerea Ariznabarreta Izkue da. Aitak ipuinak eta elezaharrak asmatzen zizkion eta amak ipuinak kontatzen zizkion, pertsonaiei ahots ezberdinak jarritz eta kantuak asmatuz; nahasketa horretatik atera zen narratzailea eta antzerkigilea.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

'Jeans' aukeraketa

Gaur egun moda etxe guztiek egiten dituzte 'bakeroak' eta ez da hainbeste diru ordaindu behar bakero on batzuk aurkitzeko. Mota askotakoak daude eta ziur bat gure gorputzera egokituko dela. Mota ezberdinak aurkeztuko ditut baita ze gorputzei doakien ondo ere:

- **Flare:** Pertsona txiki eta aldaka zabala duten pertsonetan, bisualki orekatzen du eta hankak luzeagoak ikusiko dira. Takoiak janzteak beti ere efektu hau lortzen laguntzen du.
- **Skinny/pitillo:** Modelo hau gorputz gehienei ondo geratzen zaie, batez ere gorputz argalei eta kurba orekatuak dituzten pertsonen; gorputzaren forma areagotzen dute. Hala ere, bisualki hobe geratzen da goiko aldean arropa zabala jartzen badugu.
- **Baggy:** Kurba gutxiko gorputzetan eta argalenzat, bolumena eta kurben ilusioa egiten dute. Horrek ikusmen-interesa gehitzen du, eta silueta horien itxura monotonoa hauts dezake. Irudi zuzena duten gorputzak ere praka honekin ondo ikusiko dira, kurbaren itxura egiteko. Kurbadun emakumezkoak eroso eramanez dute ez delako itsastean.

- **Mom fit:** Pertsona altuak eta kurbadunak, gerria nabarmen-tzen den bitartean aldakak zabalgak eta izterrak handiagok ikusten direnez, aukera hau mesedegarria izan daiteke irudi kurbatuentzat, atal hori leuntzen duelako. Gerri gutxiagoko irudientzat ere aukera ona dira, nabarmendu egiten duelako.

- **Straight:** Gorputz zuzenentzat, forma zuzenak gorputzaren lerroari jarraitzen diolako, itxura uniforme eta orekatua sortuz.

- **Wide leg:** Gerri mugatua eta aldaka zabala duten gorpuentzat, sorbalda eta aldakak antzekoak dituztenentzat, gerri altuak eta prakaren itxura zabalak gorpua-ren proportzioak orekatzen ditu.

- **Tiro motza:** Tiro mota hori duten prakek ez dute zilborra gaintitzen eta aldakaren azpian geratzen dira. Ez da morfologia guztietarako egokia; gorputzaren beheko alde goikoa baino luzeagoa duten emakumeei mesede handiago egiten die.

- **Tiro erdia:** Kasu honetan, zilborra gaintitzen dute eta morfologia denei ondo doakie.

- **Tiro altua:** Zilborra gaintitzen dute. Ez da morfologia guztientzat egokia, ipurdia berdintzen dutelako. Sabela duten pertsonentzat ere oso ondo daude praka hauek, adibidez emakume txikia bazara zure irudia estilizaturako dute, gainera goiko partean *cropped* erabiliz gero, zure irudia luzeago ikusiko da.

Sakandarrik ez Bardoak txapelketaren finalean

Manteleko sobrak zen finalaurrekoetara iritsi zen sakandarrez osatutako talde bakarra

SAKANA

Bigarren finalaurreko saioak jokatuta, dagoeneko Nafarroako taldekako bertsolari txapelketak finalistak ditu: Baztanzopak, Horgu! eta Mutilatuak. Finala urriaren 26an jokatuko da, Garesen. Ez da sakandarrik izan.

Altsasu, Barañain eta Leitza kideez osatutako Manteleko sobrak zen sakandarrez osatutako finalaurrekoetara iritsi zen talde bakarra. Bigarren finalaurreko saioa Irunberrin jokatu zuten, Baztango Baztanzopak taldearekin. Manteleko so-

brak-etik Ekain Alegre, Eki Mateorena eta Kattalin Lizarraga aritu ziren eta Baztanzopak-etik Alazne Untxalo, Amaia Elizagoien eta Malen Alzuart. Azken hauek irabazi zuten bai joaneko saioa, baita itzulikoa ere, finalerako txartela berretsiz.

Etxaurin Mutilatuak eta Argako Bixiguak aritu ziren; lehenengo taldeak irabazi zituen bi finalaurrekoak, finalerako sailkatuz. Tuteran jokatutako finalaurrekoan EzKrashak eta Horgu! taldeak aritu ziren; bi finalaurrekoak irabazita, Horgu! sailkatu zen finalean.



2023ko Iturrock jaialdia. UTZITAKOA

Erkuden Ruiz Barroso ITURMENDI

Urriaren 26an Iturrock jaialdiaren bigarren edizioa antolatuko dute, Iturmendin. Hiru pertsonen ideia izan zela esan dute antolatzaileek. "Gustuko ditugun taldeak entzutea eta, batez ere, helduagoak diren pertsonak mugitzea nahi genuen". Hortaz, 1980ko hamarkadako taldeak "ekartzea" pentsatu zuten, "tributuak, behintzat, izan ere talde batzuk ezinezkoa da dagoeneko ekartzea". Iturmendiaren talde bat lanean hasi zen eta azkenean hiru talde tributuekin eta tributua ez den talde batekin Iturrock jaialdia antolatu zuten. "Gaur egun gazteak ateratzen dira parrandan eta gazteendako talde berriak entzuten dira. Guk nahi genuen helduak ere ateratzea, 40 urtetik gorakoendako zerbait antolatzea; guretako egun bat".

Idea izan zuten iturmendiarrak laguntza izan zuten, besteak beste, gaztetxea proiektuan inplikatu zen "eta erantzukizun oso positiboa izan zuen", Aizkozar elkarteak eta Iturmendiko Udalak ere lagundu zuten. Aurreko edizioan Nafarroa Oinez Etxarri Aranatzaren laguntza izan zuten ere. Gaztetxeak kideen esanetan, "ikusitako helduek bazutela nahi bat haien garaiko musikak berpizteko eta hasieratik batu ginen horrelako egun bat mugitzera". Iturmendin

Herritik sortu den jaialdia

Zenbait iturmendiarrak "helduek" haien garaiko musika entzuteko eta haiendako festa egun bat izateko Iturrock jaialdia antolatu zuten aurreko urtean lehendabiziko aldiz. Urriaren 26an bigarren edizioa izanen da, talde ezagunen tributuekin

festa egunak badirela gaineratu dute, "baina eragile batetik sortu dira, ez herritik".

Iturrock bereizten duen gauzarik nabarmenena herritik sortutako jaialdi bat dela da. "Berezi egiten gaituen gauza bat da auzolanean egin dugula hau guztia. Barra egiten egon daiteke 50 urteko guraso bat eta 18 urteko gaztetxo bat. Denok biltzen gara proiektu hau aurrera eramateko", aipatu dute gazteek. Herri txiki bat indarrak batu

**"BEREZI EGITEN
GAITUEN GAUZA BAT
DA AUZOLANEAN
ANTOLATU DUGULA
JAIALDI GUZTIA"**

ditu "horrelako" jaialdi bat sustatzeko. Antolatzaileek gaineratu dutenez, helduendako bideratutako festarik eta 1980ko hamarkadako talde horiek zuzenean ikusteko aukerarik ez dago, eta hori ere nabarmentzeko da: "40 urteko pertsona bat ez da Nafarroa 1512ren edo gaur egungo gaztetxoaren kontzertu batera joango, edo bai, baina errazagoa da Barricadaren kontzertu batera joatea". Nahiz eta tributua izan, adin horretako jendearendako jaialdi bat beharrezkoa ikusten zuten.

Tributuak

Iturrocken nortasuna da "lehenengo garaia" taldeak tributuen bidez berpiztea eta talde berri bat "azaleratzeko aukera ematea".

Aurreko urtean Agoizko Irati 58 taldeak jo zuen, eta aurreko Muga Zero lakuntzarra izan zen da Iturrocken. Bestetik, Barricadaren Barrena talde tributua Bartzelonatik etorriko da, Hasta La Polla La Pollaren tributua Madrildik eta Txalainak Hertzainaren talde tributua Bilbotik etorriko dena.

Aurreko urtean antolakuntza "eroen moduan" ibili zirela aitortu dute: "Hilabete bat lehenengo, hilabete eta erdi asko jota, ideia bururatu zitzaigun eta di-

**ITURROCK 1980KO
HAMARKADAKO
MUSIKA ENTZUTEKO
ITURMENDIARRREN
NAHIETIK SORTU ZEN**

2024ko Iturrock

Urriak 26, Iturmendi**12:00** Jolasak.**13:00** Fritopote.**15:00** Bazkaria.

Ondoren, bingo musikatua.

20:00 Txalainak.**23:30** Barrena.**01:00** Muga Zero.**02:30** Hasta La Polla.

Ondoren, musika gaztetxean.

da antolatu genuen. Aurretik udazken jaia antolatu genuen diru pixka bat biltzeko. Eguna ongi joan zen, balorazioa egin genuen eta bigarren edizioa antolatzea erabaki genuen". Adin guztietako jendea gerturatu zela ikusi zuten, "gure helburua bazen jende heldua ateratzea, helburua bete zela ikusi genuen, eta hor egon gara bizpahiru pertsona eguna antolatzen". Iturrockeko antolatzaileek "talde desberdinak eta musika estilo desberdinak" egotea nahi zuten, "bestela, jende bera erakarriko lukete".

Jaialdia plazan edo, eguraldi txarrarekin, frontoian izanen da. "Aurreko urtean euri pixka bat egin zuen, baina sekulako festa antolatu genuen, eta ez zen euria nabaritu ere egin. Aurten antzeko", azaldu dute gazteek. Lehenengo ediziorako egin zuten propaganda handiaren ondorioz jendeak erantzun zuela gaineratu dute. "Ekarri ditugun taldeak talde oso ezagunen tributua dira, eta jendeak nahi ditu talde horiek zuzenean ikusi. Erantzuna izugarritzatkoa izan da".

Egitaraua

Gaueko musika jaialdia ez ezik, egunean zehar egitaraua antolatu dute Iturmendin. "Goizean adin guztietarako jolasak edo erronkak egongo dira, etxeko frijituekin egindako fritopotea egingo dugu, eta gero bazkaria". Bazkariaren ondoren bingo musikatua egingo dute, "aurreko urtean egin genuen eta mahai guztia agertu zen. Esperientzia oso ona izan zen".

Eztanda irratia 25 urte betetzen ditu, eta Iturrock urteurrena ospatzeko aitzakia ere izango da; egunean bertan, Muga Zerori egindako elkarriketa emitituko dute.

"Argazkiak ateratzeko jokoa ematen du feriak"

Altsasuko ferietako klasiko bat da Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatzen duen Ferietako Argazki Rallya. Aurten 38. edizioa izango da, eta 45 argazkilari baino gehiago espero direla azaldu du Andres Bengoetxeak. Primerako osasuna du ekimenak

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

1 Nola bururatu zitzaizuen Altsasuko Argazki Rallya antolatzea?

Historia polita du atzetik. Nafarroako Argazkilaritza Erakundea Altsasun jaio zen, Gartzia Ximenez kalean zegoen Alaska Hotelean. Altsasuko zenbait argazkilari zeuden bertan, Fernando Sayasek asko daki horretaz. Altsasun argazkilaritzarekiko zaletasun handia zegoen, eta hori ikusita, 1982-1983 inguruan rallya antolatzeko ideiarekin hasi ginen bueltaka. 1985. urtean lehendabiziko edizioa egin genuen, eta aurten 38. edizioa izango da, pandemian izan ezik, guztietan egin dugulako.

2 Zergatik Altsasuko ferietan?

Ferriak argazkiak ateratzeko joko handia ematen zuela iruditzen zitzaigulako. Gure rallyak agian horregatik du horrenbeste izena, argazkilariei guztiak arreta deitzen dielako: abereek, barazkiek, jendeak, postuek...

3 Nork parte har dezake Ferietako Argazki Rallyan?

Memoria txartela duen kamera digital bat duen edonork. Bi kategoria ditugu: haurrak eta hel-



Andres Bengoetxea, ezkerretik hasita bigarrena, Altsasuko Mendigoizaleekin batera.

duak. Aurretik, edo egunean bertan eman daiteke izena, 7:00etatik 9:00etara, Gure Etxean.

4 Argazkien gaia librea da?

Ez, gaiak daude. Gai horiek zein diren igandean bertan esango diegu argazkilariei. Gai bat, normalean, Altsasu herria edo azoka izaten da, eta gero beste bost gai egongo dira. Sei guztira.

5 Argazkilari bakoitzak zenbat argazki aurkez ditzake?

Gai bakoitzeko argazki bat; beraz, guztira sei argazki.

6 Zenbat denbora dute argazkiak egiteko?

Izena eman bezain pronto has daitezke, eta 10:00etatik 12:00etara entregatu beharko dute euren lana. Segidan, aurkeztutako ar-

gazki guztien proiektzioa egingo dugu Gure Etxean. Bitartean, epaimahaia argazkiak aztertzen eta erabakia hartzen egongo da, eta 14:00ak inguruan sari emate ekitaldia aurreikusten dugu.

7 Lan handia izango duzue argazkiak deskargatu eta argazkien proiektzioa prestatzen.

Bai, hamabi pertsona inguruko lantaldea ibiltzen gara lanean, Altsasuko Mendigoizaleak taldekoak guztiak. Argazkilariak iritsi eta berehala, euren lana deskargatzen dugu. Beraiek esango digute zein sei argazki aurkeztuko dituzten. Eta, berehala, argazkilari bakoitzaren argazkien bilduma prestatuko dugu Power Pointen. Gainontzekoen lana batzen joaten gara, eta argazki guztien proiektzioa egingo dugu, Gure Etxera hurbiltzen diren guztiek argazkiak ikus ditzaten. Bestalde, taldeko beste batzuk hamaiketako prestatzen aritzen dira, argazkilariei hamaiketako eskaintzen baitiegu Zubeztia elkartean, 10:30etik 12:30era.

8 Duela urte batzuk Altsasuko Mendigoizaleen egoitzan egoten zineten, eta ferietatik kanpoko egun batean argazki erakusketa eta sari ematea egiten zenuten.

Aurten hirugarren urtea da argazki rallya Gure Etxean egingo dugula eta sariak egunean bertan banatuko ditugula. Lan handia da, baina hobe, bestela hotz geratzen zen. Azokaren erdi-erdian gaude, eta jendea unean bertan argazkiak ikustera sar daiteke. Baina arrazoi nagusia argazkilaritzan eman den iraultza da.

9 Analogikotik digitalera egin duzue salto, besteak beste.

Argazki rallyarekin hasi ginen, karrete bana ematen genien argazkilariei; horrek egin zitzaiken argazki kopurua mugatzen zuen. Karreteak errebelatu, eta diapositiba formatuan erakusten genituen egun batzuk barru, eta sariak banatu. Pentsa. Argazki kamera digitalekin, guztia aldatu da. Egunean bertan ikus daitezke eta saritu.

10 Zenbat argazkilari espero dituzue?

Gora egin du. Azkenaldian 40-45 izaten dira, eta aurten agian gehiago hurbilduko direla esan digute. Izan ere, gure rallya Herri Herri Argazki Rallyen Txapelketarako baliagarria da azken urteetan, Euskal Herrian antolatzen diren beste hamahiru argazki rallyekin batera, eta horrek, parte hartzea nabarmen igotzeaz gain, batez ere argazkien kalitatean eragina izan du, aurkeztu diren argazkilaria oso onak direlako. Euskal Herri oso-rik hurbiltzen dira. Altsasuarrak beti aurkeztu dira, baina esango nuke geroz eta gutxiago.

11 Argazki Rallyko argazkiak hurrengo urteko ferietako kartela diseinatzeko erabiltzen dira. Hori ere sari polita da.

Bai, argazkia kartelean erabiltzeko baimena eskatzen zaie, eta ilusio handia egiten die, gainera. Sarietako dagokienez, lehen bilduma onenak garaikurra eta 150 euro jasoko ditu, bigarren bilduma onenak 100 euro eta garaikurra, eta hirugarren bildumak 60 euro eta garaikurra. Haurren kasuan, lehen, bigarren eta hirugarren haur bilduma onenak sarituko dira. Aparte, Altsasuko argazki onena sarituko dugu.



EZAGUTU GURE IDEIEN EZTANDA

gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA
of

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu